

PLENCIA

uk

184. zenbakia / 2010eko azaroaren 2a





GETXON AKADEMIAK ERE EUSKARAZ

Zure seme-alabek eskola-laguntza, musika, dantza, eskulanak, pintura, zeramika... euskaraz egitea nahi baduzu, zerbitzua euskaraz eskaintzen duten akademiaren zerrenda duzu hemen. Euskara sustatzeko konpromisoren bat hartu duten akademiak ere badituzu. Argibide gehiago jasotzeko, sar zaitez www.getxo.net/akademiakeuskaraz helbidean.



ZERBITZUA EUSKARAZ ESKAINTZEN DUTEN AKADEMIAK - ACADEMIA SALSIDU - NAGORE ETXEBARRI - CENTRO DE ESTUDIOS CIMA - ACADEMIA COLECTIVO ROMO - CENTRO DE ESTUDIOS ERNESTO - ACADEMIA LANDETA - AULA 10 - BIDEAN - CENTRO DE ESTUDIOS ELIPSE - ABANT - SOINU MUSIKA ESKOLA - ANDRES ISASI MUSIKA ESKOLA - TALDE ZERAMIKA - ARTESKOLA - ZIRRI-MARRA ARTE TAILERRA - BAI & BY - INTERNATIONAL DON'T - AREETAKO UZTARRI UMEEN EUSKALTEGIA - ALGORTAKO UZTARRI UMEEN EUSKALTEGIA - GETXOKO UZTARRI UMEEN EUSKALTEGIA - EUSKARA SUSTATZEKO KONPROMISOREN BAT HARTU DUTEN AKADEMIAK - CASA ITALIA - CONCORD IDIOMAS - DOVER IDIOMAS - ACADEMIA TRELAND - QUEBEC IDIOMAS - DEUTSCHE SPRACHSCHULE - RIFF - DANTZARTE



Getxo
bizi ezazu



EUSKARA BIZI



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



BFA
DFB

Getxoko Foru Aldundia
Diputación Foral de Getxo

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Zuberoa Iturburu, Maitane Nerekan
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (94 491 13 37)
AHOLKULARITZA: Jokin Aspuru
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta



Aldizkari hau Euskal Herriko
herri aldizkari eta euskara elkartearen
Topaguneko partaide da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Sebastian Gonzalez pilotaria, *Iparra galdu gabe*.
7. LEHEN ETA ORAIN. Axpeko kaia, Erandio.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Pepe Heredia.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. "Profesionalak".
28. ARGAZKIA. Udondoko fabrika.
30. SAKONEAN. UKgoienean.
34. FOTOGRAFIA. Plentziako pasarteak.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. *Apaizac obeto* dokumentala.
43. MUSIKA. Elkarren binilo bilduma.
44. LIBURUAK. Alberdania eta Ereinen *Batera* sail barria.
45. KIROLAK. Iñaki Otxoa de Olzaren gaineko *Pure Life* film luzea.
46. ELKARRIZKETA. Pantxoa Bimboire eta Maddy Etcheverry.

AMAITZEKO

49. NORA JOAN. Solaetxe Jatetxea, Leioa.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Areetako Raspas txapelkun, 1946.
54. AITORMENAK. Dorleta Urretabizkaia.

Azala: Plasentia Butron museoa

www.ukaldizkaria.biz



30 UKgoienean

Sakonean

Bere harpidedun-irakurleek berataz duten iritzia jaso gura izan du UK-k zenbaki honetako Sakonean atalean



11 Pepe Heredia



54 Dorleta Urretabizkaia



Leioa Berri Auto

- ibilgailu berriak
- Aukerako ibilgailuak
- Tailerra
- Autokarabanak

HARTU TXANDA ONLINE - CITA ONLINE

WWW.RENAULTLEIOA.COM

David Crestelo **Kres**
> Plasentia Butron Museoko arduraduna

Armintzako eskabetxe industria

Bizkaiko eskabetxe -industriari buruzko lehenengo berriak XVI. mendearen hasierakoak dira. Orduan, Lekeitioko arrantzaleen kofradiak arraina gazitzeko eta eskabetxatzeko bisigua saltzeari uko egin zion; alde batetik jarduera honek arrainaren prezioa igotzen zuelako, eta bestetik, lan berria zelako. Nahiz eta hasierako errefus hau eta bigarren mailako zeregina izan, urteen poderioz eskabetxe industria Kantauri Itsasoko portuetan ezarri zen; 1572. urtean arrantzaleen kofradiek Bizkaiko jauerrerrian eskabetxe-egile gehiegi zeudela onartzen zuten eta euren presentzia debekatzen zuten.

XIX. mendearen amaiera Armintzako eskabetxe-fabrika jaio zen. Lemoizko portuan ez zen arrain harrapaketa ederrik ematen. Honetaz gain, toki isolatua zen, faktore bi hauek enpresa berri batean dirua inbertitzea zaila egiten zuten. Hala eta guztiz ere, 1885 urtean Pedro Gaminde kapitainak, beste bazkide batzuekin batera, Eduardo Nafarrateren eskabetxe-denda erosi zuen, “Gaminde y Cía. Fábrica de Escabeches, Conservas y Salazones” enpresa sortuz. Arrantzaleen etxe zaharretan zegoen kokatuta, beheko solairuan hain zuzen ere, eta sukaldea, denda, barrileruen tailerra eta biltegia zeuzkan.

Artikulu hau idazterakoan enpresa honen produkzio-datuei buruzko informazio-iturri berriak aurkitu ditugu, oraindik aztertzeke daudenak. Hala ere, aurreko urteetako datuak ezagutzen ditugu: 1877an 4.600 arroa ekoitzi ziren, hau da, Bizkaiko %0,98; eta 1880 eta 1881 urteetan 6.900 eta 3.000 arroa elaboratu ziren, hurrenez hurren. Hortik aurrera enpresako jarduerarekin zerikusia daukaten beste datu batzuen berri badaukagu: 1883an eta 1884an lantoki barruan sortutako hondakinek osasun-arazoak sortu zituzten. Auzokideek



EDUARDO PEREHO

hondakin hauek berrerabiltzen baitzituzten, baina 1884. urtean izandako kolera-agerraldi baten ondorioz, enpresako nagusiak hondakinak lurperatzera edo itsasora botatzera behartu zituzten.

1889an Gaminde y Cía. enpresako eskabetxeek Gijoneko erakusketan sari bat lortu zuten, eta 1890eko Pariseko Erakusketan Unibertsalean ohorezko aipamena irabazi zuten. Hori dela eta, lehen mailako

kontserba-produktore bilakatu ziren eta Lemoizen bertan saltzeaz gain, Plentziako Juan Jose Beitiaren janari-dendan eskuragai zeuden, eta atzerrian bizi ziren eskualdeko auzokideek ere eskatzen zituzten, batez ere Kuban bizitokia zutenek.

1910ean Pedro Gaminde zendu zenean lantegia desagertu zen. Fabrika ixtearekin beste tailer osagarri batzuk ere itxi ziren: barrileruena, gatza eta olio biltegiak. ○

gu geu

UKgoiengan, zure ahotsa

Hobetzen saiatu behar dugu, nahiz eta horrek ez duen esan gura hobetuko dugunik. Gure buruagaz etenbako borrokan bizi gara, horrek ilusioak sortzea eta ametsak eraikitzea ekartzen baitu. Herri zein banakoen oxigenoa dira ametsak. Etxetik urteten garen bakoitzean bete beharreko helburuak zehazten ez baditugu, noraezean ibiliko gara. Helburuak ez dira zailak edo mingarriak izan behar; motibazioa eta bizitzarako grina sortzea besterik ez dugu bilatu behar horietan.

UK-ko familia txiki honetan, helburu xumea jarri genuen irailean: zure, gure irakurlea, hobeto ezagutzea. Bulegoko telefonoa jo eta su jarri eta zuen iritziak (batzuenak behintzat) biltzea lortu genuen. Hortik ondorio batzuk atera ditugu. Hori da, hain zuzen ere, UKgoiengan atalean aurkezten dizuguna. Guk bildutakoari, irakurle biren iritzia gehitu diogu (eskerrik asko lagunak!).

Behin ondorioak aterata, helburuak finkatzeko ordua heldu da barriro, kateari bigarren buelta emateko ordua. Kritika zorrotzak zein laudorioak jaso ditugu; horiek guztiak abiapuntutzat hartuz aldizkariari buelta erdia emango diogu. Badaezpada, momentuz ez diegu nola eta noiz galderei erantzungo. On egin!

UK-ko lantaldea



ALGORTA, URRIAK 19

Emaion/ki / Afizioa badago Uribe Kostan pilotarako. Horren adierazle da Getxo; Izan ere, Sebastian Gonzalez pilotariak bisitatu zuen Fadurako pilotalekua urriaren 19an, Iparra galdu gabe jardunaldien baitan eta Gehitu Kirolera egitasmoaren eskutik. Getxoko Pilota Eskolako umeakaz eta gazteakaz entrenamendua egin zuen, guztien gozamenarako. Lagun asko batu eta primerako giroa sortu zen txapeldunaren eta umeen artean. Ipar Euskal Herria Getxon ezagutarazi gura izan dute Iparra galdu gabe jardunaldietan, hamaika ekimen burutu dute azken hilean. ○ / Argazkia: Asier Mentxaka

“GETXOKO IZENAK”

TOPONIMIA LIBURUA

HOBETZEN DENON ARTEAN

MIKEL GOROTXATEGIREKIN TOPAKETA

2010 / 11 / 17

18.00ETAN FADURAKO KIROLDEGIAN,
ARETO NAGUSIAN

2010 / 12 / 01

20.00ETAN FADURAKO KIROLDEGIAN,
ARETO NAGUSIAN

Getxoko Izenak liburuaren ondoren, zalantzak, txarto dauden datuak, oker dauden argazkiak, komentatu beharrekoak, falta diren gauzak... agertzen joan dira. Guztia komentatzeko MIKEL GOROTXATEGI, liburuaren egilearekin elkarretaratzea egitea pentsatu dugu.

Argazki zaharrak ekartzea eskertuko da, kopiak egin ahal izateko.




Ezin bazara etorri edo zerbait argitzea nahi baduzu, deitu 94 466 00 11 telefonora edo idatzi Euskara@getxo.net helbidera.

 **Getxo**
beti auzo

 **EUSKARA**
BIZI

[lehen]



GETXOKO UDAL LIBURUTEGIA

[orain]



ASIER MENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / AXPEKO KAIA, ERANDIO

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > surfista hegalaria



2007ko Punta Galea Big Challenge txapelketa (Getxo)

Testua: **Peio Arondo**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

1

Besoak guztiz zabalik ta pixka bat makurtuta norabidea galduta aurrera itsas-mailatik dena aldatzen da errotik. Argazki hau beharrezko zen denok konturatzeko uste genuen bezela hegan egitea ez dela uste bezain ezinezko.

2

Olatua handituz doa ura bihurtzen da aire dena dago geldi, bare dena da hotz ta beroa, zeinen momentu eroa. Baina ez denez goraino igo urak busti du astiro kontaktu horrek ostera, bortizki errealitatera itzuli egin du berriro.

3

Taula gainean etzanda ametsetik esnatuta orain hasten da burruka etsaia norbera izanda. Beste olatu bat han da berriz joan nahi du zerura baina nekea da muga. Taulan igo eta jaitsi olatuari joaten utzi, ura berriro da ura.

* Doinua: Norbait bilatzen duenak

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidaliezaguzu atal honetan agertzea nahi zenukeen argazkiren bat eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti!
uk@aldizkaria.biz

sexu indarkeria > Nagore Laffageri buruzko filma estreinatuko dute



Azaroaren 12tik aurrera egongo da ikusgai Nagore dokumentala zinema aretoetan

Nagore Laffage gaztea 2008ko sanferminetan hil zuen Jose Diego Yllanese, eta epaileak 12 urte eta erdiko kartzela zigorra ezarri zion orain urtebete. Irundarraren hilketa du gaitzat Helena Taberna altsasuar zuzendariaren azken filmak: *Nagore*. Dokumentala da eta zuzendariak “*gertatu dena ez ahazteko*” asmoz egin du; azaroaren 12an estreinatuko dute zinema aretoetan. Tabernak gaur arte egin duen pelikularik “*gogorrena*” da eta urtebete ibili da prestatzen. Laffageren hilketa abiapuntu, emakumeen aurkako indarkeriaren gaian sakondu du Tabernak: alde guztiekaz hitz egin du, hedabideek aipatu ez dituzten ezaugarrietan sakontzeko. Zuzendariaren beste film batzuk dira *Yoyes* (1999), *Extranjeras* (2002) eta *La buena nueva* (2007) film luzeak, eta *La mujer de Lot* (1990), *Ochenta y siete cartas de amor* (1992), *Emiliana* (1994), *Alsasua 1936* (1994) edota *Nerabe* (1995) film laburrak. ○

internet > blogariak.net sare sozial blogala abian da

blogari.net
Sorta zure bloga di-da batean

Orbitateko kaler rikaketa: Orbitateko buruzten diru biler olaketa biler diru gure internetari.

- biola
- 20183 mura
- 22045 kudi
- 14.00 mura/egun
- 9939 erabiltzaile

Bloga Laguntza **Direktorioa** **Teulmapa** **Zabaldu** **Eskaintza** **Kontaktua**

Blogak zure ingurunean

hezkuntza elkartek enpresak
Blog sistema propioa behar duzu?

- Nahi dituzue blogak sortu eta kudeatu era errazten
- Edukietako errealitatea kudeaketa sistema erate baten bitartez
- Informazioa eguneratzea eta ordenatzea mantentzea ahalbidetzen du
- Blogarekin leku oso era errazten ahalbidetzen du
- Edukietako kudeaketa sistema
- Edukietako RSS berridatza bilerak jasotzeko aukera
- Edukietako bilerak egia
- Informazioa ahalbidetzen ahalbidetzen du

Gure eskaintza
Txantxikua (arrunta)

- [1] Blog sistema propioa
- [2] Blog planeta (blog guztiak bakar batean)
- [3] Blogak erabiltzen ikasteko 2 orduko ikastaroa
- [4] Ostetza (aurrezkoa)

@Guztiko kontaktuan jarri...

Igeldoko igela (aurreratua)

- [1] Blog sistema propioa
- [2] Blog planeta (blog guztiak bakar batean)
- [3] Blogak erabiltzen ikasteko 2 orduko ikastaroa
- [4] Behar berezietako egokitzapena

Informazio gehiago: www.blogariak.net

saiazgetaria
HOTELA

...harria

...lehengo garaia...

...itsasoa

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

irakaskuntza > ikasle eguna ospatuko dute Amurrión azaroaren 6an



Informazio gehiago daukazu www.ikasleabertzaleak.org gunean

“Ikasleón eta euskal hezkuntzaren kontrako erasoak etengabeak dira, eta beraz, aurtengo ikasturtean inoiz baino arrazoi gehiago daukagu *Ikasle Eguna* egiteko”, dio Ikasle Abertzaleak taldeak. Beste behin ere egun osoko egitaraua prestatu du azaroaren 6rako; Amurrión egingo dute aurten jaialdia. Goizean hasiko dira ekimenak. Umeentzako jolasak egingo dituzte eta Porrotx pailazoak egingo die bisita, herri mugimenduko eragileen materialagaz azoka egingo dute eta unibertsitateko ikasleen olinpiaden finala jokatu dute. Herri bazkarian batuko dira, eta 17:30ean, manifestazioan zeharkatu dute Amurrión *“Ikasleoi erasorik ez! Hezkuntza Sistema Nazionala”* lelopean. Amaieran ekitaldia egingo dute karpa nagusian eta jarraian hasiko dira kontzertuak: La Pulqueria, Habeas Corpus, Gose, Doctor Deseo eta Ze esatek! musika taldeek joko dute. Azken horrek konposatu du aurtengo Ikasle Eguneko abestia. ○

euskara > Bazen behin bizitza jolasa, euskaraz



www.luditoy.com gunean eros daiteke jokoa

Gabonetarako oparirik buruan ala Olentzerori ez dakizu zer eskatu? Aukera polita topatu dugu guk, umeentzat batez ere. Akorduan al duzu *Bazen behin... gorputza* telesaila? Hari esker ulertu du belaunaldi askok gorputzak nola funtzionatzen duen. Bada, telesailean oinarritutako mahai-jokoa kaleratu dute, eta euskaraz: *Bazen behin... bizitza*. Galdera-erantzun jokoa da, 2.200dik gora dauzka, bost ataletan banatuta: zirkulazio-aparatua, nerbio-sistema, digestio-aparatua, immunitate-sistema eta gaixotasunak. Baina ez da lehia hutsa jokatu; izan ere, parte-hartzaile guztiak saiatuko dira Kira gazteari oxigenoa ematen, birusen eraginez gaixotu baino lehen. Lortuz gero, partida irabaziko dute; baina galduz gero, Kira hotzeriak joko ei du, besterik ez. Jokoa 39 euro balio du. ○



“Musika nik aukeratu dudana ogibidea da, gero eta harrapatuago nauka”

Pepe Heredia > Gitarrista eta musika irakaslea

Etxeokoez zaletu zuten Pepe Heredia (Ciudad Real, 1955); familia bazkarietan, osabek biolina eta akordeoia jotzen zuten. Lau urtegar heldu zen Getxora eta zortzi zituenean hartu zuen gitarra eskutan: *“Musika eta erritmoak arnastu ditut txikitatik”*. Orain hamabi urte, Areetako Musika Eskolan irakasle zebilela, ikasketa plan barria martxan jarri eta hamabi irakasle kaleratu zituzten; orduan, hezkuntza proiektu propioa eraikitzea erabaki zuen, Algortako “Aula de musica” eskola sortuz: *“Musika nik aukeratu dudana ogibidea da; gero eta harrapatuago nauka, domekidan ere eskolara hurreratzen naiz, ezin naizelako akorde batzuk jo barik egon”*. Eskolak emateagaz batera, ikasleakaz batera hainbat musika talde osatu ditu Herediak. 1998an Rumba Norte sortu zuen, flamenko doinuei euskal giroa jartzen zion fusio taldea: *“Famenkoa gustuko zuen euskaldun asko zeuden, baina hori esateaz lotsatzen ziren; euskal rumba sortu gura genuen”*. Bira txikia egiten ausartu ziren, baina gure inguruan harrera nahiko ez zuela ikusita taldea desegitea erabaki zuten. Badaukat taldea sortu barri du: *“Abesti guztiak euskaraz egin ditugu”*. Ikasleakaz batu da horretarako ere: *“Bikainenak eta lotsabakoenak aukeratu ditut”*. Musika hezkuntzaren gaineko hausnarketa bategaz amaitu dugu berbaldia: *“Gaur egungo baliabideak errazagoa da irakastea; erritmo gehiago daukate ikasleek”*. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Areeta
Villa de Plentzia, 6.
T 94 464 90 87
E areeta@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Aisia bila gurera etorritakoak

2010eko udaldiari dagozkion turismo datuak kaleratu barri ditu Udalak; ostalaritza establezimenduen **okupazioa igo** egin da, nahiz eta batz besteko **egonaldiak jaitsi** diren

Bisitari gehiago izan ditu Getxok 2010 udaldian joan den urteko datuakaz alderatuz, nahiz eta horien egonaldiak laburragoak izan diren. Hori da Udalak kaleratu barri dituen datuen ondorio nagusia. Kirol Portutik igaro ziren bisitarien kopurua jaitsi egin da. Hala ere, “udaldia azken urteko onena” dela uste du Aitor Soloeta Udaleko Turismo zinegotziak.

Krisiaren mamua gainean egon den arren, Udaleko Turismo Sailak, positiboki baloratu ditu 2010eko udaldiaren datu estatistikoak. Lau ondorio nagusitan laburbil daiteke egindako azterketa.

Alde batetik, ostalaritza establezimen-
duen (hotelak zein ostatuak) okupazioa igo egin da. Hoteletan, %65,63koa izan zen okupazioa, joan den udakoa baino hiru puntu gehiago; ostatueta barriz, %79,06koa, 2009koa baino 17 puntu gehiago. Abuztuan eman ziren balore handienak, %84 eta %95egaz, hurrenez hurren.

Hala ere, bigarren ondorioa, batz besteko egonaldien jaitsiera izan da. Bisitari gehiago hurreratu arren, laburragoak izan dira euren egonaldiak; 2,08 eguneko hotelatan eta 2,32koa ostatueta.

Gora egin du, Getxo Aquariumera zein Bizkaiko Zubiko goiko pasabidera egindako bisiten kopuruak. Lehenengora egindako bisitak %66 igo dira azken udaldian; Bizkaiko Zubira egindakoak %30etik (2009an) % 47 izatera pasa dira.



Behera egin du Kirol Portutik pasa diren nabigatzaileen kopuruak

Gune bi horietan mugitu diren bisitari gehienak, bizkaitarrak izan dira. Horien atzetik, gipuzkoarrak, katalanak, eta Gaztela-Leongoak daude.

«Kirol Portutik igarotako belaontzi eta nabigatzaile kopuruak behera egin du 2009ko datuakaz alderatuta»

Laugarren ondorioa, Kirol Portutik igarotako belaontzi eta nabigatzaileen jaitsiera izan da. 815 nabigatzaile igaro da Abra-Getxo Kirol Portutik, 2009an baino 73 gutxiago. Belaontziak 258 izan ziren, joan den urtean baino 54 gutxiago. Itsasontzietan etorri zaizkigun bisitari gehienak Frantzia, Espainia eta Erresuma Batutik heldu dira.

Turismo Bulegoak eta Aldi Baterako

Turismo Informazio Bulegoak, 27.051 pertsonari eskaini zien arreta, gehienak Bizkaitik, Getxotik, Madrildik, Bartzelonatik, Frantziatik, Gipuzkoatik, Valentziatik, Alemaniatik, Erresuma Batutik eta Nafarroatik etorritakoak. Aisia izan da turisten motibazio nagusia.

Aitor Soloeta Getxoko Udaleko Turismo zinegotziak positiboki baloratu ditu datuak: *“Datu oso positiboak izan dira okupazio indizeen errekuperazioa erakusten dutelako. Udaldi hau azken lau urteetako onena izan da”*. ○

Datu batzuk

- **27.051:** bisitari Turismo Bulegoetan
- **%65:** okupazioa hoteletan
- **%79:** okupazioa ostatueta
- **2,2:** batz besteko okupazioa

Aldaketa klimatikoari

aurre egiteko proiektua UNESCO Etxeagaz



Gizarte kontsumoak herri txirotuetan uzten duen aztarnaren inguruan hausnartuko dute

UNESCO Etxeak eta Getxoko Udalak, gizarte kontsumoaren aztarnak herri txirotuetan dituen ondorioak zabaltzeko hitzarmena sinatu du.

Xede nagusi bi bete gura dituzte egitasmo horregaz. Alde batetik, herri txirotuen garapenean klima aldaketak duen eragin negatiboaren inguruan herritarrak sensibilizatzea; bestetik, eragin negatibo hori zuzentzeko behar diren tresnen inguruan eztabaida piztea. Horretarako antolatuko dute abenduan erakusketa, tokiko elkarteakaz lan tailerra eta zine foruma.

Hitzarmenaren aurkezpenean UNESCO Etxeak emandako datuen arabera, euskal biztanleek 2,5 planeta beharko lituzke ongizate maila mantentzeko. Horrela jarraituz gero, 2020 urtean, eus-

kaldunok 3,1 planeta beharko genituzke baliabide naturalen kontsumoa asetzeko. Egutero 200 espezie desagertzen dira eta 2025 urterako, egun dauden espezieen erdia desagertuko dira. Hala ere, Mikel Mancisidor UNESCO Etxearen zuzendariak mezu itxaropentsua bidali gura izan zuen aurkezpenean: *“Klima aldaketa mehatxutzat jotzeaz gain egungo modeloa aldatzeko aukera bezala ere ulertu behar da, baita aurrera eraman beharreko politika mota guztietan gai berritzaileak sartze-ko ere”*.

Aitzindaria da Getxon martxan jarri duten egitasmoa; kontsumoak herri txirotuetan duen inpaktu negatiboa orekatzten duten eta ingurumenari eta CO2 kontsumoari egokitzen zaizkien egitasmoak bultzatzen saiatuko dira. ○

ANDRA MARI AUZO ELKARTEAREN SALAKETA

Andra Mari Auzo Elkarteak bere haserrea adierazi du, EAJ eta PSE eta Gure Lurra elkartearen artean adostutako hitzarmena, euren iritzia kontuan hartu barik egin delako. HAPO diseinatzerako orduan, Andra Mariko lurretan gaur egun dauden 87 etxebizitzetara lehentasuna ematea adostu zuten. AMGL elkarteak kideek, auzokide guztien parte hartzea egon behar dela uste dute. Gainera, Plan Orokorra, garapen urbanistikoa behar errealak eta ingurumenaren gaineko eragina kontuan hartuz egin behar dela uste dute. Auzo Elkarteak argi utzi gura izan du Udalaren jokamoldeagaz daudela haserre, ez Gure Lurra elkarteagaz.

PARKING PLAZAK EROSTEKO AUKERA

Romo eta Santa Ana auzoetako bizilagunek jabetza-erregimenean erosi ahal izango dituzte, Leioan 2011ko azkenetarako amaituta egongo den Gaztelubideko parkingeko 200 bat aparkaleku. Leioako Udalagaz sinatutako hitzarmenaren ondorioa da hori. Romoko ia bizilagun guztiek eta Santa Anako Ibaigane, Ibaibide, Bidebarrieta, Joaquín Arellano, Novia Salcedo eta Amaia kalekoek eskuratu ahal izango dituzte. Izena emateko aurreneko epea Pinueta, Lamiako eta Ibaiondo auzo leioztarreko laguntzat egon da zabalik; baina, dagoeneko, bigarren epealdia zabalik dago Romo eta Santa Anako zein Leioako gainontzeko auzoetako laguntzat.

Info: 94 435 60 90

AKADEMIAN EUSKARAZ IKASI GURA DUZU?

Getxoko akademietan ere euskaraz programa martxan jarri du Euskara Zerbitzuak. GEHI programaren barruan kokatzen da ekimena. Zerbitzua euskaraz eskaintzen duten akademiak zein euskara sustatzeko konpromisoa hartu dutenak batu dira ekimenera; guztira, 28 zentro. Akademiaren zerrenda ikusteko www.getxo.net/akademialekueuskaraz gunea sortu dute.

Etxeart

Eraikuntza / Barrikuntzak

Zurezko Egiturak

Sagastikoebue Industrialdea
Etxalde 2 - Pabio 11
48830 Gortiz

Mob.: 607 148 346
Tel.: 945 773 144


<http://www.etxeart.com>

Sonia Ingunza > EHNEko baserritarra eta Nekasarea ekimeneko kidea

“Kuota ordaintzen digute baserria bizirik mantentzeko; trukean produktuak dituzte”



Sonia Ingunza areatzarra

Baserritik mahaira izenburuko berbalditxoa eskaini zuen Sonia Ingunza nekazariak urriaren 21ean. Urte bete pasatxo daroa areatzarrak Getxora hurreratzen, baserriko produktu ekologikoak ekartzeko. Urrian, Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak gonbidatua etorri zen; izan ere, kontsumo-talde euskalduna sortu gura dute elkarteke lagunek. Taldeen filosofia eta funtzionamendua azaltzeaz gain, agroekologiaz, elikadura subiranotasunaz eta baserritarren etorkizunaz berba egin zigun. Uribe Kostan taldeak sortzeko gogoa dago, baina ekoizleak falta dira.

—Zelan hasi zinen kontsumo taldean?
—Orain lau urte hasi nintzen; beti izan dugu soloa etxean. Salmenta zuzenaren sistema martxan zegoela entzunda neukan eta saiatzea erabaki nuen. Nire kabuz hasi nintzen, Arratia mailan; ez nuen talde sendoa osatzea lortu. EHNEtik kontsumo taldeak antolatzen hasi ziren eta nik Getxokoa koordinatzeko ardura hartu nuen; urte eta erdi daroat. Barazkigile bakoitzak 30 familia elikatu ahal ditu. Baserriko eredia jarraitzeko, ustiapenak asko, baina txikiak izan behar dira.

—Zer eskaini eta zer eskatzen diezue kontsumo taldeetako lagunei?
—Gure ekoizpena finkoa da; aurreikusi ahal izateko, konpromisoa eskatzen diegu. Eurek, zerrenda baten arabera, gura dituzten produktuak jasotzen dituzte.
—Baina dena ez duzu zuk ekoizten.
—Nik barazkiak ekoizten ditut. Nekasarea proiektua ekimen kolektiboa da; barazkiak saltzeko erraztasun handiagoa dago, horregatik guk bidea zabaltzen dugu.
—Areatzatik Getxora etorri behar duzu.
—Bai, hasieran oso urrun ikusten nuen

Getxo. Nire helburua nire eskualdeko jendeagaz behar egitea zen. Getxoko taldeagaz konpromisoa hartu nuenean, Uribe Kostan eurekaz behar egiteko nekazariren bat lortuko nuela uste nuen. Gero eta jende gehiago hurreratu zaigu (itxaron zerrenda dugu), baina ekoizlerik ez. Ekoizle gehiago inplikatu behar ditugu; agian jendeak beldurra du, dibertsifikazioan egiten dugulako behar eta horrek etekin ekonomiko gutxiago ekartzen du.
—Zer suposatzen du agroekologiak kontsumo taldeetako kideentzat?
—Formakuntza egin nuenean, gaztetan,

«Ekoizle gehiago inplikatu behar ditugu, eskualde guztietan egoteko»

ekologikoa lantzea ezinezkotzat jotzen zen; horretan pentsatzen genuenak zoroak ginen. Denbora pasa ahala, emaitza ikusi da; nekazaritza intentsiboak lurra erretzen du eta ekoizleen osasunerako ere kaltegarria da. Ekoiztitakoa nire familiak ere kontsumitzen du eta horrek dieta egite errazten du. Bizitza filosofia da; gauza barriak ikasten gaude beti eta ekimen oso kolektiboa da: harreman estua beste ekoizleakaz, produktuak trukatzten ditugu... Kontsumitzaileentzako ere oso ona da; baserritar pribatua daukate eta gainera ekoizpen prozesuan parte hartzen dute, galderak eta proposamenak eginez.
—Merkatutik at bizi zarete?
—Gaur egungo merkatu ereduak zapaltzen gaitu; elikadura subiranotasuna bermatzeko bizimodua aldatu behar dugu. Jendeak kuota ordaintzen digu baserria bizirik mantentzeko; guk trukean produktuak ematen dizkiogu. Kontsumitzen dugunaren %5 ekoizten dugu soilik eta hori aldatu behar dugu. ○

IX. Trikitixa Jaialdia

Hilaren 6an mundu osoko **trikitixak** entzungo dira **Andres Isasi** Musika Eskolan



Italia, Katalunia eta Euskal Herriko trikitilariak egongo dira Jaialdian

Hilaren 6an arrastiko 19:00etan, trikitixaren soinuak hartuko du Areetako Andres Isasi Musika Eskola; IX. Nazi-oarteko Trikitixa Jaialdiak Europako hainbat trikitilari batuko ditu. Hiru helburu bete gura ditu Bizkaiko Trikitixa Elkarteak ospakizun honegatz: irakaskuntza landu, trikitixa sustatu eta musika-tresna horren inguruko dokumentazioa handitu (horretarako, bideoz grabatuko dute Jaialdia).
Mikel Martinez eta Patxo Telleria aktoreak aurkezle izango dira eta Europako txoko ezberdinetatik hurbildutako musikariei harrera egingo diete eszenatokitik. Italiatik, Filipino Gambetta eta Claudio de Angeli hurbilduko dira. Britainiatik oster, Imosima taldea. Blai Casals eta Manu Sabaté kataluniarrek, euren herriko musika tradizionala ekarriko dute. Ez dira Euskal Herriko artistak faltako. Erromeria Kupela taldearen eskutik etorriko da; Mirari Azkune eta Aitziber Otegi trikitilariak eta Xabi Aburruzaga eta Jose Urrejola artistek osatutako bikotea ere entzun ahal izango dira. Sarrerak jaialdian bertan zein, aldeztur, BBK-ko kutxazainetan eta Getxoko Kultur Etxean esku-ra daitezke. ○

BRANKA ETA ITXAS ARGIA ELKARTEETAN MUSEAN

Musean egitea gogoko dutenek, Romon eta Getxon aukera dute. Alde batetik, Itxas Argia elkarteak, hilaren 11 arte izango du zabalik 15ean hasiko den mus txapelketako izen-ematea. Astelehen, eguazten eta eguenetan 20:00etan jokatuko dute parte hartzaileek. Bikote bakoitzak 15 euro ordaindu beharko du; Alkartetxean, Haizea Tabernan eta Itxas Argiako lokaletan eman daiteke izena. Bestalde, Romoko Branka Kultur Elkarteak, zapaturo emango du jokatzeko aukera. Bikoteek 16:30etik 16:55era izango dute izena emateko aukera eta 12 euro ordaindu beharko dute. Sari gozoak eskuratu ahal izango dira Romon, lau txuleta, legatz bi eta kiantza botilak, besteak beste.

IPARRA GALDU GABE AZKEN TXANPAN

Azken txanpan sartu dira Iparrak galdu gabe Jardunaldiak. Ipar Euskal Herriko musikari, argazkilari eta bestelakoak pasa dira getxotik azken hilean. Hilaren 4an, Asisko Urmenetak eta Peio Etchecoparrek ipuin eta inprobisatutako ilustrazio ikuskizuna eskainiko dute, 20:00etan Torrene aretoan. Hurrengo egunean, Iparraldeko eta Hegoaldeko pilotariak ikusi ahal izango dira 19:00etan Faduran egingo den trinkete jaialdian. Jardunaldiei amaiera emateko, Otto haurrentzako ikuskizuna ikusi ahal izango da Villamonteko Kultur Etxean, 11:30ean eta 13:00etan.

POP-ROCK TALDEEN ERROLDAN IZENA EMAN

Getxoko pop-rock musika taldeen errola barria osatzen dago Kultur Etxea. Horretan, udalerrian jaio, bizi edo behar egiten duten taldekideek osatutako musika taldeek parte har dezakete. Taldekideek NAN fotokopia, taldearen argazkia eta hiru abesti mp3 euskarrian entregatu beharko dituzte. Kultur etxeak promoziorako erabiliko du informazioa eta udaleko web orrian eskaini ahal izango du informazioa.



liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
lagusana@lagusana.net

Jean Paul Olmos > Merkatarien Elkarteko presidentea.

“Bulebarreko eraikina erabilera barriei egokitzeko, egitasmoa aurkeztu diogu Eusko Jaurlaritzari”

Hamar urte bete ditu Leioako Merkatarien Elkartek, eta gainera, Udalagaz akordioa barritu du, baina ez da garai oparoa merkatarientzat. Elkarteko presidente Jean Paul Olmogaz solas egiteko baliatu dugu urtemuga.

—Hamar urte bete dituzue.
—Egia esan, 1982an sortu zen elkartearen eta urte batzuetan lan egin zuen. Duela hamar urte abiatu genuen bigarrenez.
—Zein helburugaz batu zineten herriko merkatariorik orain hamar urte?
—Egun lan egiten dugun helburu berberagaz, herriaren eta herriko merkataritzaren alde lan egiteko. Merkataritza sustatzen dugu, bezeroak iraunarazteko lan egiten dugu, erakundeen eta merkatarien arteko harremana kudeatzen dugu.
—Udalagaz elkarlanerako akordioa barritu duzue.
—Orain lau urte sinatu genuen eta urteroko barritu dugu. Gehienetan aurreko akordio bera barritu da, baina oraingoa, zabaldu egin dugu. Arestian esan moduan, herriaren eta merkataritzaren alde lan egiteko konpromisoa jasotzen du, baita erakundearen eta merkatarien arteko harremana egikaritzeko ere. Baina



Elkartearen X. urteurrena ospatzeko jaia

duela urte bi iragarkietarako pantailak jartzten hasi ginen saltokietako erakusleihoetan eta akordioan ofizialdu dugu, hau da, barrikuntza teknologikoen erabilerara bultzatuko dugu merkataritza guneetan, Udalaren laguntzagaz.

—**Bulebarrean merkataritza bultzatzeko egitasmoa aurkeztu duzue, zertan datza?**

—Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzen programara aurkeztu dugu. Bulebarrean Merka Leioa ekimena antolatzen dugu

urtean bitan, bestelako azokak ere egiten dituzte bertan, erdi-estalitako tokian. Eraikitako garaian ez zuten aurreikusi horrelako ekimenetarako, apaintzeko egin zuten, beraz erabilera barriei egokitzeko proiektua da aurkeztu duguna, estalitako eraikina litzateke.

—**Nolako osasuna dauka herri-merkataritzak?**

—Nahiko kaxkarra, ez da gauza barria eta ez dagokio Leioari bakarrik. ○

Blues gau intimoak

Kultur Leioan hasi da Blues-Jazz zirkuitua: **solasaldia, kontzertua eta *jam-session***



Leioako Travelling Brothers taldeak jo zuen urrian

Urrian ekin diote Blues-Jazz zirkuituari Kultur Leioan. Maiatzera arte, hileko hirugarren barikuan izango da *Bluenights* edo blues gaua, kafe-antzoki giroan, 22:00etan.

Taldeek zuzeneko musika eskainiko dute, baina kontzeptu zabalagoa da *Bluenights*. Izan ere, artistakaz solas egiteko aukera eskainiko diete ikus-entzuleei; beren ibilbide profesonalaz arituko dira lagunarteko giroan.

Kontzertu ostean, barriz, *jam-session* saio libreak egingo dituzte Kultur Leioara hurreratuko diren eta parte hartu gura duten musikariakaz. Artista gonbidatuak zuzenduko du saioa, hortaz, aukera parebakoa izango da tamainako

musikariakaz aritzeko. Barritasun horiekaz Udaleko Kultura sailak urrats bat aurrera egin gura du Blues-Jazz zirkuituan.

Taula gainean zirkuituko lehenak izan dira Leioako Travellin' Brothers taldekoak, urrian eskaini zuten kontzertua Francisco Simon gitarristagaz batera. Eta dagoeneko prest dago azaroko saioa. Jose Vera Group igoko da taulara eta Angela Cervantes abeslaria izango du alboan. Bigarren diskoa aurkeztuko du Jose Vera Mallorcako baxu-jotzaileak, *Butterfly*, eta hainbat estilo landu du bertan: *jazz*, *funk*, *latin*, e.a. Luis Eduardo Aute, Ismael Serrano eta Antonio Vega musikariak aritu da Vera, besteak beste. ○

ARTISAUAK LEIOAN AZAROAREN 5ETIK 7RA

Ez da gauza barria, urtero bisitatzen dute Leioa artisauak sasoi honetan. Izan ere, Artisau Azoka egingo dute, azaroaren 5etik 7ra. Egurra, harria, zilarra, larrua, e.a. material lantzen duten artisauak etorriko dira. Guztiz amaitutako produktuak ikusi eta erosteaz gain, sortze eta lantze prozesua bertatik bertara ikusteko aukera egongo da, erakustaldiak egingo baitituzte. Artisau gutizia ederrak izango dira, duda barik.

TXALAPARTA ASTEBURUA KALIAN GUNEAN

Kontzertuak, antzerkiak eta kultur arloko hamaika ekimen antolatzen dute Kalian-Hiri Kultur Gunean. Azarorako txalaparta tailerra prestatu dute, hilaren 5erako eta 6rako, eta Ander Sanchezek eskainiko du. Edonork parte har dezake, sekula jo ez duenak eta sakondu gura duenak. Hasi barriek txalapartagaz lehen harremana izango dute eta azalduko diete tresnaren filosofia. Saiatuakuz erritmo zehatzak landu gura dituz Sanchezek: hainbat talde osatuko dituz, mailaren arabera. Bariku arrastian eta zapatuan goiz eta arrastiz izango da tailerra, eta amaitutakoan, txalaparta kontzertua egongo da. Parte hartzeak 5 euro baino ez da ordaindu behar.

www.kalian.es

BERBALAMIÑE ERE BERBALAGUNAKAZ

Abian da Berbalagun egitasmoa Leioan. Euskara praktikatzeko taldeak dira, eginez ikasten baita. Herriko euskaldunek elkar ezagutzeko helburua ere badaukate, ez baita erraza Leioan euskaraz bizitzea. Aurreko UK-k zenbakian iragarri bezala, Udaleko Euskara Zerbitsuak, AEK-k eta Udal euskaltegiak antolatu dute, bada, Berbalamiñe Euskara Elkarteak ere parte hartzen du egitasmoan. Berbalamiñek urteak daroaz ekimenak antolatzen herrian, euskara sustatu asmoz.

udondo
taberna
eguneko menua eta afariak
Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULUAK

**ERA GUZTIETAKO
ERROTULUAK eta
INPRESIO DIGITALAK**
egiten ditugu

THE BEST
SINO-DIRECT EFFECTUALGIA

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tf. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



Luberr Basolanak, SL
Arpe ibaiartza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
 Tf.: 94 467 17 13
 Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net
www.luberr.biz

- Soropila ezartzea
 Lurzoru prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongaitze lanak eta enite lanak.

- Soropila zaintzea eta mantentzea
 Moztea, ureztatzea, ongaitzea, egurustea, aratzea eta destrinkotzea, berrikaltea, soropu gaitzak eta belar gaitzak tratatzea.

- Inausetak
 Harteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inautzea, erabateko inausetak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Jagoba Gorriñobeaskoa > Lupulo musika taldeko kidea

“Rockaren eta bluesaren alderik ilunena jorratzen dugu, ez da dantza egiteko musika, entzuteko da”

Azaroaren 5ean jarri dute hitzordua Altzaga auzoko Sentinel aretoan, kontzertua eskainiko du Lupulo taldeak. Jagoba Gorriñobeaskoak jotzen du baxua, bere taldekideak dira Jaime Ayo (bateria), Iñigo Larrazabal (gitarra) eta Arkaitz Quilez (gitarra eta ahotsa).

—Erandion joko duzue laster.
—Bai, Sentinel aretoan, lehenengoz joko dugu Erandion. Azaroaren 5ean izango da, 20:30ean; sarrera, euro 2koa.
—Nolakoak dira zuen zuzenekoak?
—Ahalik eta ondoen jotzen saiatzen gara. Gure musika pixka bat arraroa da, jorratzen dugu rockaren eta bluesaren alderik ilunena. Ez da dantza egitekoa, entzuteko musika da. *Stoner* deritzon estiloa da, *The Queens of Stoner* moduko taldeen ekarpenakaz.
—Erandion lehenengoz baina beste kontzertu batzuk eman dituzue, halere, ez daroazue denbora asko elkarregaz.
—Duela urte eta erdi hasi ginen, 2009ko otsailean. Gorliz, Algorta eta Sopelakoak gara. Sopelako jaietan jo dugu, Bakio, Bermeo, Gorlizen pare bat bider, e.a.; gehienetan eskualde inguruan.
—Maketarik edo diskorik grabatu duzue ala goizegi da horretarako?



Azaroaren 5ean izango da kontzertua Altzaga auzoko Sentinel aretoan, 20:30ean

—Ez, dagoeneko kanta batzuk grabatu ditugu eta nahasketak egiten gabiltza une honetan. Grabatzeko gogoia etorri zitzaigun eta maiatzean sartu ginen estudioan. Oraindino post-produkzio lanean gabiltza, horrek gauzak askotan luzatu egiten dira-eta; ia-ia listo dauka-gu, baina oraindino apur bat falta zaigu. Gure asmoa da hemendik gutxira kale-ratzea bost abestidun “demoa”, albait arinen. Hamar kanta grabatu dugu, baina hasieran gura dugu bost atera eta

horiek apur bat mugitu. Kontzertu gehiago lortu gura dugu, taldea eta gure musika ezagutzera emateko.
—Taldea nahiko barria da, baina esperientziarik badaukazue taula gainean?
—Arkaitzek eta biok beste talde batzuetan jo izan dugu, esaterako, Konter, R13 edo Maz Mon Kis taldeetan. Halere, urduritasuna beti nabari dugu kontzertu aurretik, eta gauza ona da, esan gura duelako egiten duguna gustuko dugula eta gogoz hartzen dugula. ○

Azaroan, Lutxana

Tirante Plataformaren **Noviembre kulturala** dator, antzerkiz eta ikuskizunez beteta



Azaroaren 4an hasiko dira ekitaldiak, Altzagako Azoka Zaharrean

Azaroaren 4tik 28ra luzatuko da aur-tengo Noviembre kulturala Lutxanan, bederatzigarrena dauka Tirante platafor-mak. Ohi legez, antzerkiz, dantzaz, musi-kaz eta umorez gainezka daukate egita-raua, dana doan.
Lutxanan gauzatzen den ekimena da baina Altzaga auzoa bisitatuko du Noviembre kulturalak, bertan abiatuko da hilaren 4an. Azoka Zaharrean antzez-tuko dute *Errautsak* lana Le Petit Théâtre de Paineck eta Artedramak, 20:00etan. Gainerako ikuskizun guztiak Lutxanako eskoletan izango dira.
Tirante plataformak obra bi eskainiko du: *La vie en 2* clown ikuskizuna (estrei-

naldia) eta *Imposicion* dantza ikuskizuna.
Baina hamaika ekimen ikusteko para-da izango da hilabetearen zehar. Antzerkian arituko dira, besteak beste: Las Fellini, Behibis, Simulacro Teatro eta Khea Ziater. Eneko Balerdik dantzatuko du eta dantza ikastaroak eskainiko dituzte Izaskun Santamaria, Adriana Prieto eta Cristina Quijerak.
Musikari ere egin diote tartea, Noviembre kulturalean izango dira Karterikash, Rumbabarats edota Lavando tropas sucias. Gainera, beste zenbait gauza prestatu dute: feminismoa-ri buruzko hitzaldia, bazkaria zein bideo-emanaldia. Azaroan danok Lutxanara! ○

ETXE GEHIAGO, KÖSSLER FABRIKAREN ORUBEAN

Astrabuduan etxebizitza gehiago eraikitze asmoa dauka Udalak, Kössler Iberica fabrika zena dagoen orubean. Izan ere, Mendibai enpresa sustatzailegaz akordioa berretsi egin du Udalak. Lau eraikin egingo dituzte, guztira 50 etxebizitza, babes ofizialekoak batzuk eta salmenta librekoak besteak.

KUKULARRAKO UMEEK BADUTE JOLASTOKIA

Amaitu dituzte Kukularrako umeentzako jolastokia egokitze lanak. Hilariaren eta eskolaren ondoan dago. Gainera, Altzagako eskolaren alboko malda lokal soziala egingo dute, baita oinezkoentzako bidea ere, errepidearen aldamenean.

ARGAZKI LEHIAKETAKO LANAK IKUSGAI

Urtero antolatu ohi du argazki lehiaketa Udaleko Kultura sailak, Erandioko eraikin bereziak erretratatu dituzte aurtan. Dagoeneko aukeratu dituzte irabazleak, baina aurkeztutako argazkiak ikus ahaliko dira azaroan. Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean hilaren 12ra arte bisita daiteke erakusketa, Altzagako erakusketaretoan egongo da ondoren, 15etik 26ra. Lehiaketa irabazi du Pedro Ajuriaguerra Saiz bilbotarrak. Ondotik geratu dira Mikel Martin Villacorta eta Jose Javier Pascual Azkarate bilbotarrak, Henri Trocon getxoztarra eta Inazio V. Castro erandioztarra.

EGUTEGIAK BANATU DITUZTE DENDARIEK

Erandioko Dendarien Taldeak 2.000 egutegi banatu barri du erandioztarren artean. Kanpoko pintura lehiaketan aurkeztu zituzten 22 lanak jasotzen ditu egutegiak. *Altzagako dendetan baduzu zer esan* lelopean ekainean lehiaketa antolatu zuen merkatarien taldeak, auzoko merkataritza bultzatzeko.

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?

Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

ARLAN
ASCENSORES

Arazoei agur... **Tf. 902 54 08 54**

www.arlan.biz

GABONETAKO KOLONIETAN
IZENA EMAN DAITEKE

Abenduaren 27tik urtarrilaren 7ra egingo dituzte Gabonetako koloniak 4 eta 12 urte bitarteko umeentzat, opor sasoian. Irekiak izango dira, hau da, egunean zehar joango dira umeak kolonietara. Astelehenetik barikura izango dira, 09:00etatik 14:30era. Izena eman daiteke azaroaren 26ra arte, Kurtzio Kultur Etxean, 11:00etatik 14:30era eta 16:00etatik 20:00etara. Parte hartzeko hurrek Sopelan errolatuta egon behar dute. Prezioak eta informazio gehiago eskatzeko, 94 406 55 05 telefonora dei daiteke.

TXALAPARTA IKASI,
SEKEKO GAZTETXEAN

Hil honetan abiatuko du txalaparta ikastaroa Sopelako Gazte Asanbladak; Sekeko Gaztetxean izango da, eguaztenero. Bi maila egingo dituzte, ikasleen ezagutzaren arabera: oinarritzko ikastaroa egingo dute hasibarrientzat (musika-tresna sekula jo ez dutenentzat) eta sakonagoa txalaparta jotzen aritu izan direnentzat. Orduategiak zehaztuko dituzte taldeak osatutakoan. Irakasleari ordaintzeko hileroko kuota bat ordainduko dute. Izena emateko mezua bidali behar da sopelakoga@gmail.com Gazte Asanbladaren helbide elektronikora, parte hartu gura duen lagunaren izen-abizenakaz eta telefonoagaz. Mezuaren gaia atalean idatzi behar da: “Txapalarta ikastaroa”.

OLENTZERO AGURTZEKO
BATZORDEA PREST

Batzordea osatu dute abenduaren 24an Olentzerori egingo zaion harrera antolatzeko. Zehazki, Gabon gauean egingo dituzten ekimenak antolatuko ditu Batzordeak, eta sopeloztar guztiek parte har dezakete. Udaleko arduradunek gustuko lukete herritarren ekarpenak eta proposamenak helaraztea, “egun berezi horren inguruan egin litezkeen ekintzen ideiak aurkeztuz”. Lehen bilkura egin dute azaroaren 2an.

Euskaldunak txineraz

Zipiriñe-Iberre eskolako guraso elkarteak antola-tu ditu **txinera klaseak, umeentzat**



Informazio gehiago: sopezipi.blogspot.com

Ikasturtea badoa aurrera apurka eta ikasleak hasi dira eskolaz kanpoko jarduerakaz. Zipiriñe-Iberre eskolako Iraupen Gurasoen Elkarteak urtero antolatu ohi ditu ikastaroak, eta aurren, pare bat barritasun dakar: txinera eta *skate* ikastaroak.

Txinatar hizkuntza modan dago azken urteotan eta Sopelan jabetu dira horretaz. Ikastaroa 3 urtetik gorako umeentzat da. Ordu beteko eskolak eskainiko dituzte, barikuetan. *Skate* barriz, martitzenetan edo eguenetan irakatsiko dute, 18:00etatik 19:00etara.

Talde bi osatuko dituzte: lehena 5 eta 8 urte bitarteko umeentzat, eta bestea, 14 urte artekoentzat.

Baina besterik ere eskaintzen dute, ohi legez. Euskal dantzak lau urtetik gorako umeei irakatsiko dizkiete barikuetan, errugbia sei urtetik gorakoei, eta antzerkia Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailakoei, eguazten eguerdian.

Seme-alabek ikastaroetan parte hartzea gura duenak Iraupen Gurasoen Elkartera hurreratu besterik ez dauka (Trokabide 4), eta izena eman. ○

Nahia Rojo > psikologoa eta sexologoa

“Guztiok daukagu gaitasuna sexualitatea gozatzeko, berdin dio adinak eta egoerak”



Sexualitateari eta hazte erotikoari buruzko ikastaroa egiten dabilta Kurtzio Kultur Etxean

Sexualitatea eta hazte erotikoari buruzko ikastaroa gidatzen ari da Nahia Rojo, Mankomunitateak antolatu du, emakumeentzat. Gaiari hurbilketa bat eskaini digu Rojok.

—Ez-ohiko gaia da ikastaro batentzat, zer lantzen duzue?

—Emakumeentzako ikastaroa da, emakume batek egina: eurak dira protagonista. Edozein emakumek parte har dezake, jaiotzetik hil arte bizi dugulako sexualitatea eta nork bere gorputzagaz harreman ona izan behar du; berdin dio adinak eta bikote-lagunik eduki edo ez, guztiok daukagu gaitasuna sexualitatea gozatzeko.

—Zehazki, zer gairi buruz hitz egiten duzue?

—Gai askori buruz hitz egingo dugu eta kontzeptuak argituz hasi gara: sexualitatea zer den, zer ulertzen den sexualitatez, zein den emakumearen papera sexualitatean, e.a. Gorputzari ematen

diogu garrantzia, gozamina hitza asko erabiltzen dugu, norkbere gorputzagaz gozatzea baita garrantzitsuena, gorputza esnatzea eta ezagutzea. Gozamina izan dezakegu gorputzeko toki guztietan. Masturbazioari, zona erogenoei buruz hitz egingo dugu, ez dagoela sexualitate bakarra, asko baizik. Saltzen diguten sexualitateak izan behar du heterosexuala, koitala eta genitala. Eredu hori ez da txarra, baina beste eredu batzuk ere badaude.

«Eredu heterosexuala eta koitala saltzen digute, baina badago besterik»

—Alde teorikoa bakarrik lantzen duzue?

—Ez, alderantziz, saiatzen naiz teoria gutxi ematen eta ikus-entzunezkoen bitartez azaltzen, ikastaroa dinamikoa izatea gura dut. Hasieran zaila da, baina parte hartzaileak hasi dira apurka hitz egiten. ○

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide
pinturak



RIPOLIN
BONDEX
DYRUP

Lorotio 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta banikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
[Email: sopela@ikastola.net](mailto:sopela@ikastola.net)

LAIKAK
Taberna



EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

PAREKIDETASUNAREN
ALDE, ZINE ZIKLOA

Emakumeen eta gizonen arteko parekidetasunaren alde Zineforuma abiatu du Udalak aurten ere, Berangoeta Kultur Etxean. Hil bakoitzeko bigarren egunean eskainiko dituzte filmak, 18:30etik aurrera. “Gaurkotasuna eta emakumeentzat interesa duten gaiet heltzeko asmoa” dauka Udalak, Ane Miren Ayo Berdintasun arduradunak esan duenez: “*generoen arteko desberdintasunak eta tratu txarrak agerian utziko dituzte filmetan*”. Baina ez dira emanaldi soilak, filma ikusi ostean solasaldia egingo baitute bertaratutako guztien artean, horrek lagunduko ei du “*pelikulen atzeko mezua igartzen*”. Ayoren iritziz lagunduko du ideiak bateratzen, jarrera sexistak identifikatzen edota pertsona batzuek igarriko ez luketen tratu txar eta desberdintasun arrastoak antzematen.

AZAROAREN 13AN ETA
14AN PERRETXXIKOTARA

Perretxikoak eta zizak erakutsiko dituzte azaroaren bigarren asteburuan Gorosti Naturzale Taldeko lagunek. Lehenik, perretxikoak batzera joango dira Gorbeara, azaroaren 13an, zapatua. Bildutakoaren parte bategaz pintxoak egingo dituzte hurrengo egunean doan banatzeko; 2.000tik gora egingo dituzte eta 12:30etik aurrera dastatu ahalko dira. Gainontzeko jeneroa erakusgai jarriko dute metro aurreko plazan, domeka goizean. Urtero antolatzen du ekimena Gorosti Taldeak garai honetan.

Garaizar

barrikuntzak

- igeltsaritzak orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 577 • registrar@ouskai.net
Bilaka kalea 11 ALGORTA



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
• BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARRREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREPUAK
ZEREGINAK IKASTERO GELA (A ETA D EREPUAK)



INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / Tf. 94 491 17 86

Ttipi-ttapa ibilaldian
Sei Herri Kultur Elkartearen **Ibilaldi Neurtua**
egingo dute **azaroaren 7an**, domeka



Informazio gehiago: ibilaldineurtuaseiherri.blogspot.com

Beroketak egiten hasi al zara? Presta zaitezte, bertan da Sei Herri Kultur Elkartearen XXVIII. Ibilaldi Neurtua; azaroaren 7an izango da, domekan.

Ohi legez, bi maila egongo da, umeena eta nagusiena, 8 kilometrokoa lehena eta 14koa bigarrena. Nagusiek goizeko 08:15ean eman behar dute izena, eta umeek, 09:00etan, Sei Herri *Herriko Tabernako* plazan. Bikoteka egin behar da ibilaldia eta hiru kontrol jarriko dute.

Baina kirolerako baino, egun hori gehiago izaten da lagunartean gozatzeko. Izan ere, ibilaldia amaitutakoan poteoa egingo dute

tabernetan, ondoren pilotalekuan alkartze-ko, herri-bazkarian. Ibilaldian parte hartu duenak doan bazkalduko du, gainontzekoek 5 euro ordaindu beharko dute.

Bazkalondoa ez dira faltako musika eta kantak, umeek pelikula bat ikusi ahaliko dute eta sariak banatuko dituzte. Herriko dendariak eta lantegiak lagunduko dute ekimena.

Gogora dezagun, Ibilaldi Neurtua 1982an sortu zuen Berangoko gazte talde batek, herriko mendiak zein txokoak ezagutzera ematea, eta euskal giroko kirol eta kultur ekintza egitea helburu. Urteen joanaz galdu ezineko zita bihurtu da Uribe Kostan. ○

Borja Saracho > Edari Zahartzearen Itsaspeko Laborategia

“Edarien ur azpiko garapen prozesuaren azterketa egin gura dugu”



Borja Saracho, “Bajoelagua factory” enpresako gerentea

Plentziako Udalak ardoa eta bestelako edariak ur azpian zelan gordetzen diren aztertzeko balio izango duen Edari Zahartzearen Itsaspeko Laborategia jarri du badian, itsasertzetik 700 metrora. Bajoelagua factory enpresa arduratu da proiektuaren diseinuaz eta kudeaketaz; Borja Saracho gerenteak laborategiaren nondik norakoak azaldu dizkigu.

—Zertan datza Itsaspeko Laborategia?
—Edarien zahartzerako ur azpiko laborategia da.
—Zergatik ur azpian?

—Historian zehar urperatu diren itsasontzietan aurkitutako ardo, whisky eta bestelako edari enkanteen gorakada ematen ari zela ikusi genuen. Edarien zahartzeko era eta egitura ezberdina dela diote; zahartze geldoagoa, iodo zaporea... iritzi ezberdinak daude. Baina, inork ez du garapen horren azterketa

zientifikorik egin. Hori da, hain zuzen ere Plentziako Itsaspeko Laborategian egin gura duguna.

—Nolako izango da prozesua?
—Udalak hamalau jatorrizko deiturrekaz (Bizkaiko Txakolina, Somontano, Ribera del Duero e.a.) eta sektoreko beste enpresa batzuekaz (etiketatzea, kortxoa

«Produktua eta merkaturatze gaitasuna aztertuko dugu»

e.a.) akordioa sinatu du. Horrela, produktua zelan aldatzen den ikusteaz gain, beira, kortxoa edo etiketa egokienak zeintzuk diren ikusi ahal izango da. Produktuaren eta merkaturatzearen gaitasunaren potentziala aztertuko dugu. Hori itsasoagaz lotutako jendearentzako urtenbidea izateaz gain, turismorako amua ere bada. ○

www.underwatercellar.com

OSABIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Odontologia
- Periodontia
- PADI

Bideberr 27, beheko solairua
ALGORTA
94 430 75 96





Tomene 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iracialgorta@gmail.com

OPARIAK MODA GAZTEA

Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGIURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Ainguruenen etorb. 4B
(Jauregia, Jaka Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO

Zure publikizitatea hemen
Zure publikizitatea hemen
Zure publikizitatea hemen

Tf. 94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

MIKOLOGIA ASTEA GOÑI
PORTALEN 2TIK 7RA

Hilaren 2tik 7ra Mikologia Astea egingo dute Plentzian. Alde batetik eta asteagaz bat eginenez, perretxikoen inguruko erakusketa bi egongo dira ikusgai 7a arte, argazkiena bata eta egurrezko perretxikoena bestea. Bestalde berbaldi bi eta bideo emanaldi bat antolatutuzte. Azaroaren 2an, 19:30ean, Jose Joyera Medina Bibi jatetxeko sukaldariak sukaldean perretxikoak erabiltzeari buruz egingo du berba. Hurrengo egunean, ordu berean, Jon Larrabeiti Marron Kai Eder klubeko sukaldariaren txanda izango da. Jardunaldiak 4an 19:00etan amaituko dira “*El mundo de los hongos*” filmaren proiektzioagaz. Ekitaldi guztiak Goñi Portalen izango dira.

GAZTE ASANBLADAREN
HIRUHILEKOA PREST

Gorliz eta Plentziako Gazte Asanbladak, udazken-negu denboraldirako egitarau oparoa prestatu du. Urrian argazki erakusketak, tailerrak eta txangoak egin zituzten. Azaroaren 5ean, drogen inguruko berbaldia egingo dute Goñi Portalen. Hilaren 12an eta 19an, euskal dantza ikastaroan parte hartzeko aukera egongo da, hau ere Plentzian.

LUDETEKAKO AZAROKO
EGITARUAU

Plentziako ludotekak ez du atsedenek hartzen. Barikuetan, zinea dago 17:30ean. Horrez gain, abenduan egingo duten txalaparta tailerrean eta Izenaduba Basora urteeran izena emateko aukera egongo da azaroan.

BARRIKA

Kostaldeko ibilbideak sustatzeko Fundazioa



Interpretazio zentroa jarri gura dute Zabaletxen, Meñakozeko sarreran

Eskualdeko kostaldeko eskaintza turistikoa indartzeko asmoz, Barrika eta Sopelako Udalak batu egin dira. Oraindino egitura juridiko zehatza ez duen egitasmoa bada ere, Fundazioa sortu gura dute, euren jarduna Udaletik erabat banandua egoteko. Kresala izena eman diote proiektuari; orain arte, aipatutako Udal biek parte hartu dute, baina Getxo, Plentzia, Gorliz eta Lemoizko Udalek bat egitea espero dute.

Turisten egonaldiak ahalik eta gehien

luzatzeko, eskaintza turistikoa erakargarria diseinatu gura dute. Horretarako eskualde mailako harrera zentro bat sortzeaz gain, interpretazio zentroa jarri gura dute Zabaletxen, Meñakoz hondartzaren sarreran. Bertan dagoen arkeologia-aztarnategiak turistentzako gune garrantzitsua izan daitekeela uste dute proiektuaren bultzatzaileek. Horrez gain, itsasontzian ibilbideak antolatu, oinezkoentzako kostaldeko bideak hobetu eta kirol eskaintza sustatuko dute. ○

Aza. 2 - Aza. 15

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Belen Alvarez**en akuarelak eta olioak. Algortako erakustaretoan, hilaren 20ra arte.

PLENTZIA

► **Araldiko tailerretako lanak**. Goñi Portalen. Azaroaren 8tik abenduaren 15era.

LEIOA

► **Huella de estrella**, **Asier Bastidaren** argazkiak. Kultur Leioako erakustaretoan. Azaroaren 11tik abenduaren 12ra. Doan.

ZINEMA

PLENTZIA

► **Filmak ludotekan**. Goñi Portalen. Azaroko barikuetan, 17:30ean.

GETXO

► **Artalde + A serious man**. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Azaroaren 5ean, 21:00etan. 2,90 euro.

SOPELANA

► **Hiru mosketariak**. Kurtzio Kultur Etxean. Azaroaren 7an, 18:00etan.
► **Midas Erregearen Altxorra**. Kurtzio Kultur Etxean. Azaroaren 13an, 19:30etan.

MUSIKA

GETXO

► **Proyeto MacEnroe**. Algortako Satisfegi tabernan. Azaroaren 4an, 20:00etan. Doan.
► **Itxartu abesbatza**. Algortako San Martin de Tours elizan. Azaroaren 10ean, 20:00etan. Doan.



Aulestiko kanporaketako bertsolariak. Joseba Barrenetxearen argazkia

► **Bertsolaritza**
Bizkaiko Txapelketako kanporaketa Romon

Finalerdietara igaro aurreko azken kanporaketak jokatzen ari dira Bizkaiko Bertsolari Txapelketan. Beti egin ohi dute saioaren bat edo beste Getxon, oraingoan azken kanporaketa jokatuko dute azaroaren 7an, Romoko Gobela kiroldegian. Arrastiko 17:30ean hasiko dira kantatzen Ion Barrocal, Olatz Ibarluzea, Eneko Arrate, Gorka Lazkano, Beñat Ugartetxea eta Eñaut Uruburu. Onena finalaurrekoetara pasako da zuzenean, eta besteek puntuen arabera lortuko dute lekua. Hiru finalerdi jokatuko dira: azaroaren 21ean Durangon, 28an Zornotzan eta abenduaren 5ean Gernikan. Finala Barakaldoko BECen izango da, abenduaren 18an, zapatua.

• **Non:** Romon • **Noiz:** Azaroak 7, domeka, 17:30ean

► **Those Radios**. Romoko Trokazulo tabernan, Azaroaren 11n, 20:00etan.

ERANDIO

► **Dantzaldia orkestragaz**. Altzagako Azoka Zaharrean. Azaroaren 14an, domeka, 17:30ean.

LEIOA

► **Rodrigo Leao eta Cinema Ensemble**. Munduko musiken **denboraldia**. Kultur Leioako Auditoriumen. Azaroaren 12an, 21:00etan. 25 euro.

ANTZERKIA

ERANDIO

► **Errautsak**. Altzagako Azoka Zaharrean. Azaroaren 4an, eguna, 20:00etan. Doan.
► **Ipuin kontalaria, euskaraz**. Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean. Azaroaren 11n, 18:00etan.
► **Omenaldia hiru tenoreei**. Opera. Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean. Azaroaren 13an, zapatua, 19:30ean. 2 euro.

LEIOA

► **El club de las mujeres invisibles**. Kultur Leioako Auditoriumen. Azaroaren 5ean, 20:30ean. 12 euro.
► **Humanos/ Robot maitea**. Kultur Leioako Auditoriumen. Azaroaren 14an, 12:00etan. 5 euro.

BESTEAK

BERANGO

► **Umeentzako jarduerak**. Berangoeta Kultur Etxean. Astelehenetik barikura, 16:00etatik 20:00etara.

GORLIZ

► **Ludoteka**. Kultur Etxean. Azaroaren 2an, 4an, 9an eta 11n, 17:00etatik 19:00etara.

ERANDIO

► **Kontsumo bulegoaren hitzaldiak**. Altzagako Emakumeen Elkartean. Azaroaren 3an eta 10ean, 18:00etan.
► **Sexu aholkularitza**. Udaleko droga-menpekotasun gelan. Azaroaren 5ean, 18:00etatik 20:00etara.
► **Hitzaldia: Ortu eko-komunitarioak**. Altzagako Postetxe Zaharrean eta Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean. Azaroaren 4an eta 11n.
► **Zikloturista ibilbidea**. Altzagako Irailaren 23a plazatik. Azaroaren 14an, 11:30ean.

PLENTZIA


► **Ludoteka**. Goñi Portalen. Azaroaren 3an eta 10ean.

LEIOA

► **Artisautza azoka**. Bulebarrean. Azaroaren 5etik 7ra. Goiz eta arrastiz.

GETXO

► **Itsasoruntz ekimena**. Areetako Bizkaiko Zubiaren plazan. Azaroaren 13an, 10:30ean.



**TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK**

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA



KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROTZEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA



BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz



SATISTEGI

**ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!**

BASAGOITI ETORBIDEA 31
ALGORTA



“Profesionalak”

Obretan titulu-bako profesionalak dira: jubilatutak. Behintzat, aholku asko ematen diete langileei. Obra non, erretiratuak han; denbora-pasa aparta askorentzat, musean jokatzera, perretxikotara edota mendira ibilaldiak egitera joan ohi dira beste batzuetan. Kontua zera da, krisia gora eta behera, argazkiok azkenaldian eginak dira, zenbait obra egiteko diru apur bat beti izaten da-eta gordeta.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Udondoko fabrika

eraitsi dute

Behera bota dute minutu gutxiren buruan Udondoko fabrika, Leioa eta Erandio artean kokatuta zegoen, Ibaizabalen alboko errepidearen ondoan. Asier Mentxaka UK-ko argazkilariak lan ederra osatu du eraitsi zuteneko sekuentziagaz; urrian izan zen. Irudiotan ikus daitekeenez, di-da batean desagertu da makinatxo bat urteko historia, fisikoki behintzat. Ibaizabal ertzeko iragan industrialaren azken arrastoek apurka jotzen dute lurra, etxebizitza eraikinei leku eginez. Baina historia ez da fisikoa bakarrik, eta oraingoan, udondotarren gogoan lotuko da gordeta?

ASIER MENTXAKA

Hamargarren urteurrena aspalditxo bete zuen UK aldizkariak, eta zaharrak eguneratzeko beste ahalegin batean, bere burua aztertzen ipintzeko ordua zela ondorioztatu zuen uda baino lehen. Ikasturte barriari lotu ohi zaizkio egitasmo barriak, horregatik, ez beste arrazoren batengatik, UK-k irailerako utzi zuen azterketa. Sasoia iritsi, ebaluatu beharreko gaiak ondo prestatu eta Julen Nafarrate kazetari-lankideak aztertzaileengana jo zuen. Eta zein aztertzaile hoberik UK-ko harpidedun-irakurleak baino? Orrialdeotan datu orokorrak, galdetutakoak, jasotako erantzunen islada direnak, eta ondorio xehe batzuk batu ditugu. Ahazterik ez duena da primerako aztertzaileak izan zaretela, mila esker! Eta aurrerantzean, ondorioakaz “lanean gabiltza!”...

UKgoienean

bitxiloreak, asunak eta sasiak

Testua: **I. Sagarminaga eta Julen Nafarrate** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

UK aldizkaria

Datu orokorrak

- Harpidedunak guztira:** 2.618 lagun
2.211 norbanako
407erakunde/enpresa
Eskualdekoak: 2.371
Getxon 1.642 lagun
Leioan 279 lagun
Sopelan 150 lagun
Erandio 129 lagun
Berangon 80 lagun
Urdulizen 24 lagun
Plentzian 24 lagun
Gorlizen 22 lagun
Barrikan 21 lagun
Eskualdetik kanpokoak: 247 lagun
- Harpidetza kuota ordaintzen dute:**
503 lagunek (%19,2)
- Banaketa (eskualdean):** 171 lekutan
Getxo* 64 lekutan
Erandio** 25 lekutan
Leioa 22 lekutan
Sopela 17 lekutan
Berango 13 lekutan
Gorliz 10 lekutan
Urduliz: 9 lekutan
Plentzia: 8 lekutan
Barrika: 3 lekutan

* Getxo (Algorta, Getxo, Areeia, Neguri, Romo).
** Erandio (Erandio, Asua, Astrabudua).

Irailean, lau astez, lanegunetan, telefono edota e-posta bidezko inkesta egin zitzairen UK-ko harpidedun-irakurleei. Danetara 364 lagunek (horietatik 39k e-postaz) erantzun zituzten galderak. Harpidetza datuak eguneratzeaz gainera, *nortzuek irakurtzen duten, 1etik 10era zein puntuazio emongo lioketen, aldizkaritik gustuko den dutena zer den, zer gehitu-kendu edo aldatuko luketen, etxera sasoiz iristen zaien, informazioaren erabilgarritasuna, aldiz-*

“Irailean 350 harpidedun-irakurle baino gehiagok erantzun diote UK-k egindako inkestatxoari”

karia hurbil sentitzen duten eta hizkuntzaren erabileraren gaineko galderak erantzuteko eta beraien iritzia emoteko eskatu zitzairen elkarriketatuei. Harpidedun barriek zein “betikoe”k, andrazkoek eta gizonezkoek, adin ezberdinetakoek, eta batez ere getxoztarrek (harpidedunen artean ere kopuru handiena dira) erantzun diote inkestari. Deigarria eta “UK-ko be-

rezitasun-bitxikeria” izan liteke, euskaldunak ez diren “irakurleek” ere (“begiraleek”; argazkiak dituztelako gogoko, noiz-bait euskara ikasten ibilitakoak direlako, seme-alaba euskaldunak izan eta begiratzten dutelako...) erantzun dutela inkesta. Oro har, 364ko lagin xume baina garrantzitsu horretatik abiatuta, UK-k udagoienean jasotako inkestaren fruituak, hona:

Oro har UKtik gehien baloratu dutena da hurbiltasuna eta euskara hutsean

izatea; eskualdean gertatzen denaren barri izaten dutelako edota bertoko jendea, eza-gunak, agertzen direlako, eta horren denaren barri euskaraz heltzen zaielako. Hala ere, kolore askotako iritziak daude, hona batzuk: hainbat getxoztarrek *Bizarra Lepoan* hurbilago sentitzen zuten, “Getxokoa bakarrik zelako, Uribe Kosta osora hedatzean hurbiltasuna galdu du”; beste

Koloretako proposamenak. Erantzunak: zuritik baltzera.

Telefonoaren beste aldetik zuritik baltzera bitarteko kolore denetako erantzunak jaso ditugu; batzuetan goxo, bestetan euskarari eta euskalgintzari errespetu txint barik; atzo zenbait garrantz baina zintzo, ederrak, gaur hainbat ausart zein lotsabako... Horien guztien isla lirakekeenak jaso gura genituzke hemen:

Atsegin osoz erantzun dute gehienek, kritika onak zein txarrak eginez, sakonagoak edo azalekoak, denak eskertzekoak eta kontuan hartzekoak. Ostera, inkestak agerian utzi du Uribe Kosta euskaraz normaltasunez berba egiteko zailtasunak agendaudela. Kontuan hartuta inkesta UK etxean jasotzen dutenen artean egin dela, “teorikoki” euskaraz dakien, ulertzen duen edota euskaltzale direnei deitu zaiela, hala eta guztiz ere, salbuespena izanda ere, ondoko erantzunak ere jaso ditu Nafarratek: “*Si no hablas en castellano, vamos mal...*”; “*Arratsalde on! / ¿Que?, No te entiendo ni papa, a mi en castellano...*”; “*Arratsalde on! / Te has confundido*”; “*Ya no tengo nada que ver con las cosas esas del euskera...*”, “*Estamos como para bobadas de esas*” e.a.

Zorionez, elebidun hartzaileen jarrera goxoa ere ezagutu dugu, euskaraz berba egin ez arren, euskaraz ulertzeko gai izan eta inkesta euskaraz egin eta erantzunak gazteleraz emon dituztenena.

Alde batetik behintzat, hizkuntzaz gabiltzala; euskara mailari dagokionez, hainbat irakurlek aipatu dutenez, UK oso atsegina egiten zaie irakurtzeko, “*freskoa, irakurterraza da*”, umoretsu “*komunean irakurtzeko aldizkaria!*”; “*idazkera zaindua den arren, ez ohi da formalegia egiten*”, “*4. profila dut, eta batzuetan BERRIA irakurtzea astuna egiten zait. UK-gaz hori ez zait gertatzen, ez du esan nahi idazkera gutxiago zaintzen denik, kontrakoa baino*”; euskaraz irakurtzera animatzen duela ere aipatu du hainbatetik, euskalduntzeagaz jarraitzera animatzen duela ere bai. Hala, inkesta egindako gehienek bat egin dute gaur egun UK-k erabiltzen duen hizkuntza formulagaz. Halere, argi dago, irakurle askok bizkaiera gehiago erabiltzea faltan botatzen duela; horren albotik, proposamen nagusienetakoa da Gure Berbakere atala berreskuratzea. Ostera, euskara batua gehiago erabiltzea ere eskatu

dute; ezin ahaztu euskara ikasten (batuera da oinarri) dabiltzanek ere UK irakurtzen dutela.

Proposamenak aipatuta, asko eta koloretsuak izan dira, eta gehienak atal barriak sortzeari dagozkien, gutxi dira “egitura-aldaketa” egitearen gainekoak. Adibidetzat, besteak beste: Gure Berbakere atala sortzea (23 proposamen), zeharka bizkaiera gehiago erabiltzea (15 prop.), argazki gutxiago agertzea (11 prop.), denborapasak hobetu eta indartzea (7 prop.), kirol atala gehiago lantzea eta futbola bestelako kirolak jorratzea (6 prop.), Getxoko informazio gehiago sartzea (6 prop.), iritzi gehiago sartzea (6 prop.), euskara ikasteko atala sortzea (4 prop.), koloretan izatea (4 prop.), sukaldeko errezetak agertzea (4 prop.), herri “txikietako” informazio gehiago azaltzea (4 prop.), batua gehiago erabiltzea (4 prop.), elkarriketatuen atala “zabaltzea” (“lokalegia da”/ “glamour-a falta zaio”) (4 prop.), historia eta toponimiaren atala sortzea (3 prop.), agenda atala zabaltzea (3 prop.), gazteentzako eta umeentzako atalak sortzea (3 prop.), politika atala sortzea, azala aldatzea e.a.

Inkesta

364 lagunekoa lagina

• UK eskualdetik kanpo ere banatzen da:

Bizkaian 123 etxetan; Gipuzkoan 22 etxetan, Araban 12 etxetan, Nafarroan 3 etxetan, Madrilan 10 lekutan, Andaluzian 10 lekutan, Bartzelonan 9tan, Valentzian 8tan, Galizian, Gaztela eta Leonen eta Asturiasen 3natan, Frantzian 7tan, Mexikon eta AEBetan banatan.

• UK-ri emandako nota: 8

8 (%46), 9 (%24), 7 (%19), 10 (%6) 6 (%4), 5 (%0,6), 3 (%0,3)

• UK-rekiko hurbiltasun maila: 8,27

8 (%48,6), 9 (%28,1), 10 (%9,8), 7 (%9,5), 6 (%2,5), 4 (0,95), 5 (%0,32), 3 (0,32).

• Informazioaren erabilgarritasuna: 8

8 (%46), 9 (%25), 7 (%13), 10 (%8), 6 (%4), 5 (2,3), 3 (%0,6)

• Hizkuntza maila/erabilera: 8,66

8 (%39,7), 9 (%29,4), 10 (%24,2) 7 (%4,2), 6 (%2), 4 (%0,32)

• www.ukaldizkaria.biz gunea:

2010eko apiriletik martxan Laginaren %78k ez du ezagutzen

• UKagenda

2009ko maiatzetik martxan Laginaren %83,6k ez du ezagutzen; horietatik %62k jasotzeko eskaera egin du

• Jasotako proposamen batzuk:

Gure berbakere atala sortzea Bizkaiera gehiago erabiltzea zeharka Denborapasak hobetzea eta indatzea Getxoko informazio gehiago Iritzi gehiago sartzea Euskara ikasteko atala sortzea Koloreduna izatea Sukaldaritza errezetak berreskuratzea Herri “txikietako” informazio gehiago Batua gehiago erabiltzea Elkarriketatuen eremua zabaltzea ... (lokalegi delako) Historia eta toponimia atala sortzea Agenda zabaltzea Gazteentzako eta umeentzako atalak Politika atala sortzea Azala aldatzea (barrukoagaz loturarik ez duelako; edota tristeezia delako) Horoskopoa kentzea Bertoko hizkeraren hiztegitxoa sortzea Gazte musikariei tarte handiagoa Literatura gehiago lantzea



Orain dela gutxi UK-k sortutako web gunea ez du jende askok ezagutzen; beste erronka bat.

herrietako zenbaitek (batez ere Berangotik Lemoizera inokoe) euren “herri txikien presentzia handiagoa” eskatu dute; batzuek UK-k eskualdea egiten laguntzen duela adierazi dute, “eskualdea hobeto ezagutze-ko eta eskualde-sentimendua hedatzeko” lagungarri dela; etorri barri diren uribe kostarrek ere UK-k eskualdea ezagutzen laguntzen diela azaldu dute, “integratzeko” erabiltzen dutela; eta kanpoan bizi diren uribe kostarrek esan dutenez UK-ren bidez ere lotura mantentzen jarraitzen dute.

“Gogokoena eta aipatuena inkesta egindakoen erdia baino gehiagorentzat, zalantza barik, argazkiak dira”

Badira elkarriketak eta albisteak aipatu dituztenak, baina gogokoena eta aipatuena inkesta egindakoen erdia baino gehiagorentzat, zalantza barik, argazkiak dira: Fotografia edota Lehen-orain atalekoak; denak. Horren arrazoitzat duten kaltetatea aipatu dute, “zoragarriak” direla. Ostera, “atzerriko” bildumei aukera handia emoten zaiela eta eskualdekoak gutxi ageri direlako kritikak ere jaso dira; hainbatek argazki gehiegi daudela ere iritzi dio. Aitortu beharrekoa da irakurle denek ez dutela interes berdinagaz irakurtzen, eta ez dutela sakontasun berdinagaz erantzun. Edukiei dagokienez, hainbat irakurlek aipatu dute UK-n informazio ugari agertzen

bada ere, ez direla merezi duten gai asko sakontzen; interpretazio, erreportaje eta kronikek ez dutela lekurik; gai garrantzitsuak jaso arren, horiek herrian sortutako eztabaidak ez direla jasotzen; edo “*herrietik datozen barriak eta ekimenak gehiago jorratu beharko lituzkeela, instituzioenak hainbeste jorratu beharrean*”. UK-k bere burua zuzitzeko asmo barik, baina aipatzekoa da herri mugimenduak ez duela ohi-tura handirik UK-ra ekimenen barri bidaltzeko; ezjakintasunak edo horien barri

garaiz ez jasotzeak eragiten dute sarri horien gainerako informazioa ez lantzea. Agian inkesta beste modu batera egin zitekeen, agian ez da “adituek” egiten duten lakoa... Xumea izanda ere, azterketa orok du emaitza, gurea: bitxilore, asun eta satsua. Aurrerantz, sasiak ebagi eta bakanketa egiten ahaleginduko gara, asunak sendabelartzat hartuta xarabe edo ukendua egiten, eta kantak dioen legez “bitxiloreekin pultsera” egin eta “begietara begira hauxe” esan gura dizugu: eskerrik asko!

OHARRA: Inkesta amaitutzat jo arren, datuak eguneratzeko eta kritikak zein proposamenak jasotzeko ateak zabalik dauzkazue. ○



Josu Amezaga > EHUko irakaslea

“Faltan dut herriko aldizkari bat”

Josu Amezagak unibertsitateko irakaslearen ikuspuntutik baino algortar ikuspegitik duen iritzia eskainiko duela adierazi du. —**Jorrazten diren edukien inguruan zein da zure iritzia?** —Aldizkariak nortasun falta-edo du. Eskualde osoa hartzen du, herri guztiak ez daude elkarri oso lotuta; berez da zaila nortasun handiko aldizkaria izatea. Eta eskualdea asko aldatu da, horrek ere eragiten du. Ezagutzen ditudan beste herri aldizkari apurrenetan, lotura handiagoa dago; berriro diot, arazo estrukturala izan daiteke, eskualdearena, ez aldizkariarena. Ostera, eskualde-herriekin zerikusi handirik ez duten gai, pertsonaia eta irudiek-eta gehiegitan espazio handia hartzen dute. Horrek ere ez du laguntzen nortasuna hartzen. Ez diot horiek baztertu behar direnik, arindu baino. Faltan hartzen dut eskualdeko aldizkari bat; herriko aldizkari bat. Baina, aukera bat egin zen bere garaian, eskualdekoa izatea eta... Bestalde, asko estimatzen dut bukaerako argazki zaharra; beti dut ezagunen bat agertuko den esperantza! Estilo hori gustatzen zait; aukera ematen dio jende multzo txiki baina multzo bati, hor bere burua identifikatzeko. Horrek lotzen du jendearekin, eskualdearekin. Hori da faltan dudan estiloaren adibidea, orri horretan badagoena. —**Informazioaren tratamendua-eta zelan ikusten duzu?** —Faltan ditut herrietako eguneroko bizitzarekin zerikusi handiagoa duten gaiak; herriko arazoak, polemikak, eztabaidak... Gauza oso konkretuak agertzen dira, baina beste horiek ditut faltan. Gustu kontua: alde grafikoak gehiegi jaten du; irudi gehiegi, eduki gutxiegi. Baina seguru naiz beste batzuek kontrakoa esango dutela. —**Proposamenik?** —Esandako bat, argazkiak arindu. Gero, tarte handiagoa egitea historiari, eskualde-herrien historiari. Ez bakarrik orain 200 urtekoa, azken hamarkadakoa ere, bizitzen etorri direnen historia nola joan den eskualdea eraikitzen, herriak osatzen... horiek ere identifikatuta senti daitezten. Ezin bada egunkaria egin, egin behar bada gaiak ez horren egunekoak dituen aldizkaria, historia gehiago sartuko nuke. Udal politikei buruzko eduki gehiago ere sartuko nuke, ez udal-iragarpenak egiteko, baizik horien polemikei leku handiagoa emateko; kritikari, herriko udalgintzako kritika politikoari. ○



Amaia Arriaga > Erandioko udal langilea

“Hizkerak nabarmenduko nituzke”

Amaia Arriaga Erandioko udal langilea eta LABeko ordezkaria da. 30 urte baino gehiago daroa Astrabuduan bizitzen, eta ondo ezagutzen du UK, aldizkariako kolaboratzaile ere izan da-eta. —**Zer duzu UKtik gogokoen?** —Lehenengo egiten dudana da, portadako argazkia begiratu ostean, normalean ikusgarria izaten delako, Erandioko orrietara jo. Eta gustuko dut sarritan egiten denean artikuluren bat sakonean, edo pertsonaia interesgarriren bategaz. —**Jorrazten diren edukien eta genero aldetik, zein da zure iritzia?** —Ondo dago. Baina ni neu iritzi zalea naiz. Eta iritzi artikulua orain badaude, baina leku handiagoa egingo nieke. Eta gustuko dut, uste dut UK-ren ezaugarrietako bat dela, aurpegi bati lotuta lantzen direla gaiak, hori ondo dago.

“Pil-pilean dauden eztabaidetako iritziak jaso beharko lirateke”

—**Eta hizkuntzaren tratamenduaren aldetik?** —Erraz irakurtzen da UK, arin sentsazioa emoten du; hori seinala ona da. Baina, kasu batzuetan, lekuz kanpo-edo egiten zait, bizkaierazko formak eta batuakoz zelan erabiltzen diren; batzuetan nahastea dago. Gehixuago zaindu beharko litzateke. Adib.: artikulua batean ipintzen badu “Leioako mahatsagaz...” eta gero “nolatan...?”; niretzat nahastea da... Apur bat gehiago zaindu beharko genuke hizkera aldetik, estilo bat hartzen denean horri segitzea... —**Proposamenik?** —Esan dut, iritzi atala zabaldu. Eta ez dakit hor, edo beste modu batera, herrietan pil-pilean dauden eztabaidetako iritzi eta planteamendu desberdinak aurkezteko aukera ere egon liteke. Euskara aldetik, ahalegina egiten da, baina oraindino ahalegin handitxua egin beharko litzateke eskualdeko hizkerak nabarmentzeko; ez da berdin Urdulizko euskara edo Erandio Goikoakoa, horretan sakontzea gustatuko litzaidake. Eta, agian, sormen lanak-edo sartzea, bertsoak, idazlan laburrak e.a.; sormen lanetarako atala... ○




Plentziako pasarteak


Argazki sorta ederra dakargu oraingoan, Plentziako hainbat pasarte biltzen du, guztiak XIX. mende bukaerakoak eta XX. hasierakoak. Plasentia Butron Museoko lagunek utzi dizkigute; herritarren artean bildu dituzte. Herriko historia erakusten dute, eguneroko eszenak, ohiturak, jaiak, eta abar; baina gutxitan daukagu aukera horrelakoak ikusteko. Irudiok gure iragana gehiago ezagutzeko balioko dutelakoan, goza itzazu! Gehiago ikusi edo jakin gura baduzu, hurbil zaitez Plentziako Plasentia Butron Museora.

Argazkiak: **Plasentia Butron Museoa**











BETIKO IKASTOLA

GURE GAURKO ETA BETIKO IKASTOLA

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Leioako ikastolen Elkartearen ikastola bakarra.

Ikastolen Elkarte

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net



GAVRKO



GIZONENTZAKO MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Beothuk-en kulunkan

Apaizac obeto, azken balea txaluparen kondaira dokumentala **laster** ikusgai



Jon Maia dokumentaleko irudi batean

Orain 4 urte Pasaiako Albaola itsas kultur erakundeak *Apaizac Obeto* espedizioa antolatu zuen: lehengo euskal marinelek legez, 6 astez arraunak astinduz eta haizeak baino bultzatuko ez zituen belen bidez nabigatzeko. Helburu argia zuen: “*itsasoa-ren historiako pasarterik harrigarrienetakoa ezagutzera ematea: XVI. mendeko euskaldunen balea eta bakailaoaren arrantza Kanadako Ipar Atlantikoan; arrantza soila gaindituko zuen itsas epopeia*”.

Itzuleran, horren gainera *Apaizac Obeto* liburua plazaratu zuen espedizioko partaide Jon Maia bertsolari eta idazleak eta laster egongo da ikusgai berak zuzendu

eta Orio Produkzioak-ek ekoitzitako *Apaizac Obeto, azken balea txaluparen kondaira* dokumentala. Azaldu dutenez, “*Historia hau, lur haiei Quebec edo Kanada izan aurretik, mapa zaharrenetan Nouvell Biscay (Bizkaia Berria) esaten zitzaizenean abiatzen da; urtero urtero, milaka euskaldun Ozeano Atlantikoa gurutzatu eta Mundu Berriaren iparraldeko ur arrotz eta urrunetara lanera abiatzen zireneko ga-*

«Jon Maiak zuzendu eta Orio Produkzioak-ek ekoitzi duen dokumentala»

niain. Protagonista Beothuk da, San Joan galeoiarekin batera hondoratuta, Kanadako itsas arkeologoek Labradorreko ur hotzetan aurkitutako munduko balea txalupa zaharrenaren errepika berria; Pasaiian eraikitako azken euskal balea txalupa...”. Gidoia euskaraz sortu dute, baina adituek eta partaideek esandakoak haien hizkuntzetan jaso dituzte. Lana ingelesez, gazteleraz eta frantsesez eskaintzeko asmoa dute. Filman entzun daitekeenez “*historia liburuetan galeoien, ontzi handien gorabeherak aipatzen dira, baina beti ahazten txalupa txikiak, xumeenak; Gure historia hori hain handia da, paraje hori hain handia da... eta gure txalupa txiki horrekin hain ...*”

Lanaren aurrerapen laburra:
www.orioprodukzioak.com/eu/produccion-82-6/ap aizac-obeto/



Abant

Basarrate 20 Ionia 48991 (Algorta-Getxo) Tf. 94 404 91 65 - 656 70 31 61

- Psikopedagogia eta Eskola Orientazioa

- Ikaskuntzaren zailtasunak
(idazketa, irakurketa, ulermena, dislexia...)

- Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza

Binilo bilduma Elkarren

Cicatriz, La Polla, Kortatu, Barricada, Laboa eta Ruperren **lehenengo lanak** disko-jogailurako



Argazkian, Kortaturen *Kortatu* lehenengo lan luzeko azalaren zatitxo bat

Badira berain garaietako mugak gaindituz, ahoz aho, belarriz belarriz hainbat belaunaldiren bihotzetan lekua egin eta gaur arte bizirik iraun duten taldeak, gurean ere hainbat, musikaren garapenerako ezinbesteko erreferente bihurtu direnak gainera. Horietako hainbaten zenbait disko aukeratu eta bilduma barria abiatu du Elkarrek, lanok bere jatorrizko euskarrian eta formatoan, hau da biniloan, argitaratuz. Hurrengo sei talderen edo kantariren lehenengo lanak dira modu berezi horretan bildumari hasiera emon diotenak, hain zuzen: Barricadaren *Noche de rock & roll*, La

Polla Recordsen *Salve*, Kortaturen *Kortatu*, Cicatrizen *Inadaptados*, Mikel Laboaren *Bat-hiru* (2 LP) eta Ruper Ordorikaren *Hautsi da anphora*. Estreinako lan haietan jasotako abestiez gainera, batzuetan aurretiko kantaren bat edo *bonus track*-en bat ere gehitu dituzte. 180 gramotako binilo barriotan lan horiek bermasterizatuta eta informazio osatuagaz eta egokituagaz datoz. 15,25 euroko prezioan ipini dituzte salgai, Mikel Laboarena salbu (19,15 euro). Aurrerantzean, binilo-bilduma hori osatzera etorriko diren disko gehiago kaleratuko dituztela jakinarazi dute Elkarrekoek.

diskoak

Sueños podridos
Sutura
Baga biga



Trintxerpeko (Gipuzkoa) taldearen hirugarren diskoa da *Sueños podridos*. Erabat sartu dira punk musikaren erritmo bizian, eurek diotenez, eta zuzeneko “zatarra” dakarte. Kanten artean Real Sociedad futbol taldeko ereserkiaren punk-rock bertsio berezia egin dute: *Txuri Urdin*.

Ametsak eta...
Urko Menaia
Gaztelupeko Hotsak



Menaiai berak sortutako abestiak batu ditu *Ametsak eta oroitzapenak* lehen diskoan, baina Urtzi Urkizuk eta Montxo Cornagok ere letrak utzi dizkiote. Kantugileagaz kolaboratu dute Idoia Oteiza pianistak eta Luis Fernandez biolontxelistak. 70eko abeslariaren joerari jarraitzen dio Menaia.

Lovin' Gaztea
Hainbat talde
Oinuka



Gaztea irratian 20. urteurrenaren harira kaleratu dute *Lovin' Gaztea* mailtasun kantuen bilduma. Besteak beste, Ken Zazpi, Berri Txarrak, Gose, Gari, Esne beltza edota Su ta Gar taldeen abestiak jaso dituzte, baita hainbat bertsio ere: Hertzainak *Aitormena*, Itoizen *Hegal egiten* edota Barricadaren *Mañana sera igual* kanta euskaraz.

web gunea > zuzeneko musika

Orain arteko hutsunea bete asmoz, Euskal Herrian antolatzen diren zuzeneko musika emanaldien barri emoteko helburuagaz, alegia, www.musikazuzenean.com web gunea sortu dute. Koldo Otamendi musikazale eta kazetaria da gunearen koordinatzailea eta gunea hornitzeko eta eguneratzeko musika arloan diharduten (diskoetxeak, sustatzaileak, musikariak eta musikazaleak e.a.) kolaboratzaile sareagaz batera, zuzenekoan barri emotiaz gainera, hainbat kontzerturen ostekoak ere, hau da taldeen biografiak, zuzenekoaren kronika, argazkiak edo bideoak ere jasoko ditu web guneak; horrez gainera, jaialdi eta kontzertu esanguratsuen jarraipen berezia ere eskaintzeko asmoa dute. Bestalde, gunean “iritziak plazaratzeko edo nork bere ekimenen barri jakinarazteko” bertan izena emonda egotea eskatzen dute. Halaber, ekimena ekonomikoki aurrera eroatea ahalbidetzen laguntzeko 25 euroko harpidetzak ipini dituzte.

www.musikazuzenean.com

diskoa > Bizardunak

Hilaren 10ean sartu ziren estudioa bigarren diskoa grabatzeko helburuagaz Bizardunak talde nafarra. Gor diskoetxeak banatuko En Zugzwang izen-datuko duten eta euren estiloan, euskal folk erradikaleko 14 kantak osatuko duten lana. Azaroan argitaratuko da ahoan ulerik ez daukan bederatziko taldearen bigarren diskoa eta ziur jaigiroa eta edatekoa ez direla faltako! Aurrerapen legez, Gor-en web gunean kanta bat jarri dute doan jaits daitekeena.

www.myspace.com/bizardunak



I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tl. 94 430 23 45
Teléfono 1 Tl. 94 460 27 41

Algorta

[liburuak]

Batera nazioarteari begira

Onetsitako lanak euskararatuko dituen saila sortu dute Alberdaniak eta Ereinek


Erein eta Alberdania argitaletxeen lankidetzatik sortu da *Batera* saila. Esan barik doa, argitaletxe biek burujabe izaten jarraituko dutela, lehenagotik bakoitzak bere kabuz aurrera eroandako eginbeharrak eta egitasmoak bakoitzaren ardura izango dira. Zenbait arlotako ikuspuntuetan bat datozela antzemanda, Batera saila sortzeko jardun dute alkarlanean eta lankidetzat horren oinarri ondorengo bost zutabeak ezarri dituzte: leialtasuna, eraginkortasuna, ardura soziala, aniztasuna eta lehiakortasuna.

Sail jaio barriaren helburua atzerriko merkatuan ibilbide handia izan duten, edo izango dutela aurreikusten den liburuak

«S. Collinsen *Dena sutan* eta Arnaldur Indridasonen *Hilobiko isiltasuna*»

ruak beste hizkuntzetara itzultzen diren garaian euskaraz ere eskaintzea da; hau da, “onespen bikaina” izan duten edota izatea espero den lanen itzulpenak plaza-ratzen diren parean, edo lehenago ere, euskarazkoa eskuragai egotea.

Dagoeneko Baterak erditu ditu lehenengoko bi emaitzak: *Dena Sutan*, Koro Navarrok euskaratu duen Suzanne Collins estatubatuarren *Catching Fire*



Indridasonen *Hilobiko isiltasuna* liburuaren azala

zientzia fikziozko eleberria (Gose Jokoak trilogiako bigarrena), eta *Hilobiko isiltasuna*, Julen Gabiriak euskarara ekarri duen Arnaldur Indridason islandiarraren *Grafarpögn* (Erlendur Sveisson inspektorearen sailekoa) polizia nobela. Lehenago biak nobelak badira ere Batera-n bestelako generoei ere plaza eskainiko dietela jakinarazi dute arduradunek.

Horrez gainera, oraindik labean bada-go ere, hurrengo zein izango den ere aurreratu dute: Kai Meyerren *Arcadia* trilogia osatzen duen lehena *Arcadia inatzarria*.

Informazio gehiago:
www.erein.com/litBatera.htm
www.alberdania.net

liburuak



Joan. Hartzak, erlojuak ...
Patxi Zubizarreta
Txalaparta

Musika eta literatura nahasturik dator Lisboa eta Zuberora artean bidaiatzera gonbidatuko gaituen lan honetan. Eleberriaz batera Joserra Senperenaren bost fado eta Martin Tejeria esatariak Maddi Oihenarten laguntzagaz grabatutako ipuinaren audioa aurki daitezke.



Ninak ospa
Marliese Arold
Elkar

Nina adin txikikoa da. Etxeko giroaz nazkatuta dago eta ospa egin gura du. Horregatik, Hanburgora doa, bizimodu barri bila. Adin txikikoa izateak zein bidean aurkitutako beste oztupoek sortutako arazoak gainditu beharko ditu; ez du bide samurra izango.

[kirola]

Bizitza bizia, Otxoa de Olza

Mendigoizale nafarraren salbatze-saiakera eta bizi-filosofia jasoko ditu *Pure Life* lanak



Informazio gehiago: www.purelifethemovie.org / **Berak sortutako fundazioa:** www.soshimalaya.org

2008ko maiatzaren 18an, hegoaldeko bidetik Annapurnako tontorrera heltzeko zorian (100 m.-ra, 8 ordura) zegoela, gorpuzak itzultzea eskatu eta Horia Colibasanu errumaniar alpinista lagunagaz 4. kanpamendura itzuli zen Iñaki Otxoa de Olza (Iruñea, 1967-Annapurna, 2008) mendigoizalea. Iritsi eta buru-edema batek mugitzeko gaitasun barik utzi zuen, ezin edan, ezin jaitsi eta ia arnasa ezin harturik; anaia Pablok azaldu lege, “7.000 metrotik gorako altitudea eta bizia ia bateraezinak dira; oxigeno faltak apurka hiltzera zaramatza”. Laguntza deia jo eta, ia ezinezkoa zela jakin arren, inguruan zeuden goi mailako mendigoilaririk prestuenak eta Himalaya ondoen ezagutzen duten nazioarteko 10 alpinista Otxoa de Olza salbatzeko ahaleginean antolatu ziren; askoren ustez “Himalayan historiako salbatze saiakera handiena” martxan ipiniz. Ostera, helikopteroak ezin igo, mendizale-lagunen ahaleginek, zoritxarrez, ondorio onik ez, eta mendizale nafarra, 5 egunez biziari atxiki ostean, oxigeno-botila heldu baino 4 ordu lehenago zendu zen.

Iruindarrak Himalayako aurreko bizi-penak, 12 zortzimilakoren igoyerak zein zu-

en mendi-bizi filosofia batzen zituen *Bajo los cielos de Asia* (Saga) 2004an idatzi zuen; ate andana jo bazituen ere, bera hil ostean, bere familiak lortu zuen argitara zezaten.

Salbatze-saiakeraren gaineko dokumental laburra ere egin zuten, *La voz de Iñaki*; hori ekoitzi zutenak orain film luze-dokumentala prestatzen dabilta. Irailean abiatu zen grabazio-taldea Katmandu, Pokhara eta Annapurnako base-kanpamendura, eta

«Udabarrirako amaitu eta Donostiako Zinemaldian aurkeztu asmo dute»

bueltan Pirinioetan ere grabatuko dituzte lekutzeak. Lanaren izenburuak, *Pure Life*, Otxoa de Olzaren sentipen-berbetan du oinarria; Pablo Iraburuk eta Migeltxo Molinak zuzendu eta Arena Comunicacion Audiovisualek eta Txalap.art-ek ekoitzi dute. Udabarrirako amaitu eta Donostiako Zinemaldian aurkezteko asmoa dute “*egun haietan bizitakoak, mendizale nafarraren nortasuna eta bizimodua, bizitzarekiko maitasuna, adiskidetasuna, elkartasuna, ekintza, pasioa, egia, bizitza bizi-bizi bizitzeko animoa...*” jaso gura dituen lana. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

350 m²

KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / Tf. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.

- MARKA GARATIAK
- 24 OREKUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETETIKO GARANTIA
- 35 URTEZ ZURU ZERBITZUA
- HYTELRA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 - ALGORTA

Pantxoa Bimboire eta Maddi Etcheverry > txokolategileak

“Iparraldean txokolatea izigarri zaharra da, anitz txokolategi bazen nonahi”

Txokolatea egiten dute Pantxoa Bimboire eta Maddi Etcheverryk, ohiko erara, artesanala. Algortan hitzaldia eta txokolate dastaketa eskaini zuten, Iparra galdu gabe jardunaldien baitan. Pantxoak erantzun ditu gure galderak.

—Txokolatea egiten duzue, “ohiko ekoizpena”, zer esan gura du horrek?
—Ene amatxi zenak erosi zuen denda 1930ean eta badira hiru belaunaldi segitzen dugunak lan horretan; nik 1991n ukan nuen aitarengandik. Beste lan bat daukat baina denda kudeatzen dut, senideek ere lan egiten dute. Ez dugu aldatu batere txokolatea egiteko manera.
—Produktu naturalak erabiltzen dituzue?

—Hasieratik guk egiten dugu txokolatea, haziak erosten ditugu, erretzen ditugu eta hortik garatzen dugu txokolatea. Hazia erre ondoren puskatu egiten dugu, ingurua kentzen diogu. Hortik dator kakaoa bera, bere gurina eta guzti. Emaitza da lehengai eta nahastunak gero kafearekin, natarekin edozein gauzarekin.
—Hobea da zuen txokolatea? Zer alde dago txokolate industrialagaz?

—Hobea ez dakit, nik ez dezaket erran hobea dela. Desberdintasuna da hazitik lantzen dugula, hori da gure berezitasuna. Beste batzuek ez dute erosten hazia, erosten dute kakaoa eta hori lantzen dute.
—Eta ohikoa al da Euskal Herrian txokolatea egitea zuen moduan?
—Bai, bai, gauza izigarri zaharra da Iparraldean. Anitz txokolategi bazen nonahi: Baigorri, Hazparren, Uzta-ritzen, Baionan e.a. Baionan bertan bazi-



1854an sortu zuten Cazenave Txokolategia, Baionan

ren hamar bat txokolategi une berean. Baina marka handiak hasi zirenean gauzak industrialki egiten, ttipiek porrot egin zuten. Bakarrik gelditu ziren “goimailako” txokolategiak. Baionan orain lauzpabost gira.
—Asko saltzen duzue?
—Beno, saltzen da; saltzen dugu goxokia

“Hazitik lantzen dugu txokolatea Cazenave Txokolategian, hori da gure berezitasuna”

baina txokolate beroa ere, hori da beste manera bat txokolatea jateko.
—Bestelako goxokiak ere egiten dituzue?
—Baita, turroiak eta bestelako produktuak egiten ditugu, baina gehiena txokolatea. Lantegi moderno bat badugu Baionan, han lantzen dugu txokolatea

eta egun guztietan saltzeagatik eramaiten dugu, freskotasuna atxikitzeke. Seri ttipiak egiten ditugu, horrela ziurtatzen dugu fresko egongo dela.
—Eta esportatzen al duzue?
—Ez dugu saltzen beste dendetan, baina bai esportatzen dugu parte ttipi bat urrunera, Tokiora edo New Yorkera.

—Eta gaurkoa moduko ekitaldirik maiz egiten duzue?
—Guttitan. Behin batez egon gara Oñatin Iparraldeari buruzko aste batean, baina bestela guttitan. Maite dugu inizatiba hau eskuara defenditzen du eta gu ere hortan gira, eta egun batez, parte hartzen dugu hortan. ○

Fredi Paia

Uribe Kostarron jatorria

Aurreko alean neguko solstizioagaz batera gure eskualdera etozan *pastore kipu-tzen* ganean egin neutsuen berba. Informazio hori eukitea ezinbestekoa da gaurko gaiari oratuteko: zein da egungo Uribe Kostarron jatorria? Berton, akabuko milaka urteetan bizi izan dan giza multzo egonkorra zelan eratu zan? Itau gatzegiak emoten dabe, baina argi apur bat egiten ahaleginduko gara. Etnografia (antropologiaren oinarri lez), dialektologia eta herri literaturaren analisi konparatiboa erabiliko doguz horretarako. Gauza gitxitan egiten dabe bat antropologek, baina horreetako bat da gizakia nekazaritzaren bidez inon egonkortu aurretik nomada zala, bai ehiztari moduan baita artzain legez bere. Ganera, kostaldea bildur iturri izan da orain gitxi arte. Gure eskualdeko dorretxe guztiak kostaldeko era-soetatik babesteko posizinoan eraikita dagoz; Getxon, Gorliz eta Barrikan itsasotik babesteko gazteluak egozan, etxeguneri zaharrenak *itxosoti* ez ikusteko moduan eraiki ziran. Portu Zaharra nahi Armintza garai modernoan eginda dagoz. Hainbat ikerlarik argitu daben moduan, Antton Erkorekaren esanetan, euskal kostaldea irregularki populatuta egon da mende luzeetan. Azpimarratzekoa da negua pasetan ebela artzain gipuzkoarrek gure eskualdean. Nabegazinoako sasoirik txarrena da negua eta kostaldean ziurtasun handienekoa. Bestalde, euskalkien aztertzaileen akabuko barriek dinoen moduan, gipuzkera eta bizkaiera, errealitate homogeneoak ez izateaz ganera, akabuko mendeetan sortutako kontzeptuak dira. Gaztelaren aldeko jauntxoek sortutako errealitate administratibo barriak (Bizkaia eta Gipuzkoa) sortzeak eragindakoak. Eskualde bakotzeko euskaragazko antzerakotasunak askotan ez dauko zeri-kusirik hurrekotasun geografikoagaz. Esaterako, ikerketa oinarri dogun trashu-mantziak batzen dituan Uribe Kosta eta



Azkorriagako gazteluaren arrastoak

Gizpuzkoako Goierriko azpieuskalkiek antzekotasun handiak daukiez, parajeagoko eskualde askogaz daukoguzanak baino handiagoak. Argigarria da zelan aurrekoan aitatutako Martin Etxezarreta artzain zegama-

«Euskal kostaldea irregularki populatuta egon da mende luzeetan»

rrak, Barrikako euskera edarto egiteko, txistukari (tx/ts/tz/x/s/z) ahoskera eta gurean sano sustraituta dagozan berba gitxi batzuk baino ez ebazan aldatzen. Aditzak (gintzen, zien, di(r)e), deklinabidea [-e(a)] eta lexikoa sano antzekoak dira. Horri gehitu behar geunskio beste datu bitxi bat. Uribe kostan grabazino proiektu ezbardinen bidez batu diran ipuin berberak, eta gehiago, batu ebazan Gipuzkoako Goierri Barandiaranek bere *Eusko-Folklore. Materiales y cuestionarios* lan ospetsuan. Kontzentrazino berean ez

dabe koinzididuten beste inongo eskualdegaz. Edozelan bere, konparazino beharretan sakondu beharko geunke. Hametik animau gura neukez gure eskualdeko filologo, antropologo eta nire moduko titiriteroak kontu honeek ikertzera. Nire ustetan, kostaldeko eskualde legez gure jatorriaren gakoa hor dago. Hau da, garai baten, artzaintza eta ehizetik bizi izan diran gizatalde guztiak legez, urtaroka lekuz aldatzen zan gizataldea izan ginan gu. Udako kanpalekua, udagoieneko kanpalekua eta neguko geunkazan. Negua Uribe Kostan, uda Aizkorrieko Urbian eta Udagoiena Gipuzkoako Goierri igaroten gendun tribu, klan, koadrila edo dana dalakoa izan ginan. Gerora, oraindino kostaldeko herri udatirretan pasetan dan moduan, batzuk urte osoa Uribe Kostan lotzen hasi ziran. Trashumantziek iradokitzen deuskuenagatik, Barrika zan lekuri egokiena artzaintzat. Bitxia, gure eskualdeko arrasto arkeologikori zaharrenak bere bertan egotea. ○

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozatzen has zaitezzen.



Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 53
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



Eguneko menua **Jatetxea** Karta
Asteburuko menua Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



Hamburgesak Ogitartekoak
Sandwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)

[zure iragarkia hemen]

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini geugaz harremanetan:
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

[gaurko**aukera**]

Solaetxe Jatetxea

Neguan ere bero-bero egoteko aukera



Solaetxeko Koldo Cortazar

Neguan udan bezain bero. Horrela egon zaitezke Leioako Sarriena auzoko Solaetxe Jatetxera hurreratuz gero. Oilasko erretegia eta goi mailako sukaldaritza proposamenak dituen jatetxea biltzen ditu; bietan (baita kaleko oilasko erretegian ere) berogailua jarri dute, neguan bero-bero lagun edo familiartean egon ahal izateko.

2005ean Koldo Cortazarrek hartu zuen jatetxearen ardura. Kalitatearen eta erosotasunaren aldeko apustua egin zuen; lehengai freskoak erabiltzen ditu jatetxean zein erretegian. Eguneko menua eta menu berezietan gain, hasierakoak, haragi, arrain eta postre landuak dituzte: arrain zopa, ahate bularkia sagar konpotagaz, txuleta, pantxineta e.a. Indaba jana egiteko aukera ere badago. Gabonetan, enpre-

sa, koadrila zein familia ospakizun bereziak antolatzeke aukera ematen dute, aurrez hitzartutako menuak diseinatuz.

Aukera merkeagoa eta azkarragoa gura dutenentzat, oilasko erretegiak urte osoan ditu ateak zabalik. 160 lagunentzako lekua dauka eta garagardotegi menua eskaintzen du. Kanpoko mahaiak, parking handia eta umeentzako jolas gunea ere badauka.

ONCE erakundeagaz egindako beharrari esker, bezeroentzako karta brailen eskura daiteke, itsuek zer aukeratu erabaki dezaten, oztupo barik.

Talde handian zein txikian, hurbilekoei merezi duten ospakizuna eskaintzeko lekua badago Leioan! o

Sarriena auzoa 166, LEIOA
Tf. 94 463 24 87



ARTAZA ETXEA
JATETXEA

- gosariak
- txuletoia • bakailoa
- arrain freskoa

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Etxekia, Gabea erailkuren aurrean • LEIOA



BASTARTENT

URDULIZ

Teléfono: 948 761 128



JUAN-MARI

Harategia eta txarkuteria

ARTESANA

LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA



KONTXI
ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiatzpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!

Alungobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA

Aurkezu z.g. • T.F. & Fax: 94 491 53 21

ALGORTA • GETXO

Maria Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangoberri 10

Tf. 94 491 08 21

ALGORTA

HARTU TXANDA

GOIZEAN

"Gozaki eta prentsa, gutxi denik ez prentsa"

Prentsa - Frutu lehorak - Aldizkariak - Lisosmeriak

Ordutia Mendatea 1

Tf. 94 430 22 13

GETXO

Telletxe 13

Tf. 94 400 02 00

ALGORTA



irratia 108 fm

[horoskopoa]

◆ URA (Abenduak 21 urtarrilak 19) Lagunen bisitak jasoko dituzu eta oso pozik jarriko zara. Baina kontakizunek inbidia emango dizute. Argazkiak ez da nahikoa, baina ez da gutxi. Gozatu horiekaz.	◆ OTSOA (Urtarrilak 20 otsailak 18) Udazkeneko hego haizeak txora-txora eginda utzi zaituela diozu, bai zera! Jakina da zureak konponbiderik ez daukala, baina lasai, ez duzu-eta burua galduko...	◆ ADARRA (Otsailak 19 martxoak 20) Jan eta lo, hori gozarena. Lasaitasuna daukazu gorputzean azken aldian. Bada, hori goitik behera aldatuko da, beraz, hasi prestatzen...
◆ AITZURRA (Martxoak 21 apirilak 19) Zu bai ipurterrea! Pipermina bota dizute goizeko kafean ala? Beno, horrela gauza askoz gehiago egiteko denbora daukazu. Baliatu gurari guztiak betetzen saiatzeko.	◆ HOSTOA (Apirilak 20 maiatzak 19) Udazkena sasoi tristea izan ohi da askorentzat, baina ez zuretzat. Indartsu eta zoriontsu hasi duzu urtaroa eta horrela jarraituko du aste askoan. Gozatu!	◆ EGUZKIA (Maiatzak 20 ekainak 18) Lanik ez, baina zertarako lagunak alboan? Garai polita datorkizu, kalean eta parrandan lotu barik. Argi bizia darie zure begiei, enamoratuta edo? Zenbategaz? Bategaz, bigaz... ?
◆ GARIA (Ekainak 19 uztailak 18) Bizitzak ondo zaintzen zaitu, ezin zara kexatu. Laster gripea hartuko duzu, baina sentitu ere ia ez duzu egingo. Lanpetuta ibiliko zara, baina ez lanez gainezka, ezin kexa zaitzke...	◆ LASTOA (Uztailak 19 abuztuak 17) Maitasunean aro ederra biziko duzu, arazotxo batzuk izan dituzu, baina konpontzeko bidean daude. Udazkeneko erromantizismoak erabat harrapatuko zaitu.	◆ IRATZEA (Abuztuak 18 irailak 16) Apur bat erdoilduta zabilta, sasoiari jartzeko unea iritsi zaizu. Ibilaldira batzuk, igeriketa apur bat, mendiren bat edo beste igo eta berehala nabarituko duzu hobekuntza; saia zaitetz behintzat!
◆ META (Irailak 17 urriak 16) Azkenean iritsi da eguna eta kontzertu erraldoi batera joateko aukera izango duzu, modako taldeek joko dute. Primeran pasako duzu ikasle horien guztien artean.	◆ HAZIA (Urriak 17 azaroak 15) Urduri ibiliko zara datozen asteotan, arazo txikiak dira. Kontua da buruari lar eragiten diozula. Hartu arnasa eta lasaitu, ia edozerk dauka-eta konponbidea.	◆ NEGUA (Azaroak 16 abenduak 20) Barrio bota dizu begirada eta bihotza ia atera zaizu bere tokitik, ematen du lasterka ihes egin behar dizula, lar nabaritzen zaizu. Baina zoriontsu zara eta kitto! Hor konpon besteen esamesak!



EUSKAL HERRIA

Bideak zabalduko dizkigu gure lurraldeak miatzeko eta ezagutzeko.

Eskuratu

KIOSKOAN:

Hilabetero 2,5€ ordainduta

BERRIA egunkariarekin batera

ETXEAN:

Harpidedun eginda, hilabetero etxean urtean 24€ ordainduta.

Kioskoan baina %20 merkeago.

Harpidetza egiteko:

TELEFONOZ: 943 30 35 54

POSTA ELEKTRONIKOZ: harpidetza@nora.aldizkaria.info

WEBGUNEAZ: www.nora-aldizkaria.info





HITZ GURUTZATUAK

12345678910

1

2

3

4

5

6

7

8

9

10

Ezker eskuma

1. Luzeak dituzte lepoak. 2. Kanpo, landa. Beherakoa, beheitikoa. 3. Hizki baten izena. Gaztela-Leongo hiria. 4. Erabateko nahasmendu. Ipar Euskal Herrian, inguru. Potasioa. 5. Zangozatik igarotzen den ibaia. Galioa. 6. Harrapa ezak! Nauruko biztanle. 7. Lehenengoa. Presio unitate. Barre. 8. Alderantziz, hortzetako eritasun, txantxar. Zangoaren atal. 9. Irla. Musika nota. 10. Laborariak.

Goitik behera

1. Laikoa denaren nolakotasun. 2. Zornotzako elizatea. Euskal Herrian Euskaraz. 3. Fosforoa. Longidako kontzejua. Bata eta bestea. 4. ... egin, goitik ari. Emaztearen ezkontidea. 5. Euskal sindikatu abertzalea. Sutondoko kate kakodun. 6. Korta. Suari dariona. 7. Zerragaz lan egiten du. Ez eme. 8. Idisko. Behiaren arba-so. Iodoa. 9. Ipar Euskal herrian, zain. Uztaila. 10. Buru arinak.

Soluzioa

K	V	I	R	V	Z	V	K	E	N
V	L		V	E	T	R	V	H	U
N	I	O		K	V	R	I	E	S
I	R	I		R	V	B		V	
H	V	U	H	U	V	N	O	T	
V	G		V	T	L	E	S	N	O
K		I	R	I		S	O	V	K
S	O	G	R	U	B	V	X	I	
V	I	R	E	K	A	K		T	V
K					E	Z		L	E



AREETAKO RAZQUINEK ATERATAKO ETA EDUARDO HERNAEZ "MOTOP"-K UTZITAKO ARGAZKIA

ez hain gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Zein egunetan ospatuko da Nazioarteko Trikitixa Jaialdia?

> Aurrekoaren erantzuna: Bolivia
> Irabazlea: **Ez dago irabazlerik***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

“A ze pare, karakola eta...”

- barea
- pailazoa
- elefantea

> Aurrekoaren erantzuna: Gobela
> Irabazlea: **Julene Zenikazelaia***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA

NORA

hilabetekariaren sei hilabeteko harpidetza doan

SARIA

“Musika munduko jolastokian”
Fermin Muguruzak
prestatutako musika bilduma bikaina

Bidalari erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu

Bittor Egurrola

AREETAKO RASPAS TXAPELDUN, 1946

Abran jokaturako Espainiako Trainerillen Txapelketa eskuratu zuten areetarrek urte horretan, eta antza denez, hori izan da bere historian lortutako garaipenik garrantzitsuenak. Argazkian dauden guztiak ez dira arraunlariak; izenak aipatzean zehaztuko ditugu zeintzuk ziren Raspas taldekoak. Interneten irakurri dugu 1945ean izan zela garaipena, baina argazki orijinala Areetako "La Gabarra" tabernan dago eta behealdean "Razquin 1946" idatzita dago. Areetako Kale Nagusian, gaur Mapfre dagoen lekuaren ondoan dago taberna hau, baina argazkiaren sasoian biak (Mapfre+"La Gabarra") "Anparo" taberna zen eta beharbada hor bertan atera zen goiko argazkia, taberna horretako jabea, Manolo Cuesta "Caiman", bertan agertzen baita.

1. **lerroa:** Felipe Sodupe, Ginebrilla "Electrico" (patroia), Koke Guillen, Juan Agirrezabalaga "Gorrion" (arraunlaria), Emilio "Camorra", Joseba Badiola, Lino "Sestao" (arraunlaria), Jose Gonzalez "Chatarra" (arraunlaria).
2. **lerroa:** Jose Luis Badiola, Teodoro "Castreño" (arraunlaria), Javi Otxantesana, Eduardo Perez "Kurrusko", Angel Otxantesana "Totoa" (arraunlaria), Sodupe "Kotxorro", Manolo Cuesta "Caiman".
3. **lerroa:** Santi Bartolome, Fidel Txamorro, Rafa Montoya "Pugil" (arraunlaria), Juan Zabala, Angel Intxaurtieta, Dabalillo.

OHARRA: 182. zenbakian “Erandioko Goi-Alde Dantza Taldea”-ren inguruko testuan, Mariano Loroño aipatu genuen taldearen sortzaileen artean, baina Mariano Olea izan zen taldea sortzen lagundu zuen abadea.

DORLETA URRETABIZKAIA > aktorea

“Gaua nahiago dut sortzeko, eta eguna, kalean ibiltzeko”

Testua: Zuberoa Iturburu Argazkia: xxxx



Defini ezazu zeure burua berba bitan.
Burugogorra, alaia eta sentibera naiz.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?
Ikaragarri gustuko dut *Alguien volo sobre el nido del cuco* filma, edozein pertsonaia antzeztuko nuke.

Txikitan zer izan gura zenuen?
Egia esan, aktorea edo ileapaintzailea.

Badaukazu ohitura txarren bat?
Erretzen dut eta kafea oso gustuko dut.

Beraz, aitor dezakezun bizio bat?
Esan ditut, baina *Nocilla* ere oso gustuko dut.

Zerk ematen dizu beldurra?
Zezenek, txikia nintzela herriko festetan ihes egin zuten eta izutu nintzen; orain ikusi ere ezin ditut egin.

Barriz egingo zenukeen bidaiarik badago?
Bai, Costa Ricara, orain bi urte egon nintzen eta ederki pasa genuen.

Zein da zure ametsetako bat?
Gustuko pelikula batean lan egitea eta liburu on bat idaztea.

Animalia bat izango bazina, zer izango zinateke?
Katua, oso gustuko ditut eta fisikoki perfektuak dira.

Zer barik ezin zaitezke bizi?
Oraintxe sakelekorik gabe, tristea da baina hala da.

Eguna ala gaua?
Gaua sortzeko eta eguna kalean ibiltzeko.

Parrandarik politenak non?
Herrietako festetan udan, edozein herritan.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?
Orain ari naiz deskubritzen Iparraldea eta oso polita da, herri txikiak... ○

LABURREAN— Goenkale ETBko telesailari esker ezagutu genuen Dorleta Urretabizkaia (Lasarte, 1977) baina igaro da hamaika urte orduz gero. Aktore lanagaz jarraitzen du, baina antzerkian dabil azkenaldian. Leioa bisitatuko du azaroaren 5ean, *El club de las mujeres invisibles* lana antzezteko. Kultur Leioan izango da, 20:30ean. Gainera, zuzentzen ere ausartu da, laster estreinatuko du *Miauless* umeentzako obra. Hori dena nahikoa ez eta artikulua ere idazten ditu GARA egunkarian. Bere erantzunak irakurtzeko prest?

BIZKAIAKO

BERTSOLARI

TXAPELKETA 2010

5.3

azaroaren 7an,
GETXON,
ERROMOKO
GOBELA
KIROLDEGIAN
17:30ean

ENEKO ARRATE
ION BARROCAL
BEÑAT UGARTETXEA
OLATZ IBARLUZEA
GORKA LAZKANO
EÑAUT URUBURU

Gai-emolea:
ZURIÑE IARRITU

ERDU
METROAN!

uk

urteko kostako aldizkaria

Bizkaiko

BBK

Getxo

Leioa

Leizorik



jaietan
euskaraz

kiroletan
euskaraz

gure!
artean
euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia